

Projet de politique linguistique

*« Un objectif central :
des locuteurs complets
Un cœur de cible :
les jeunes générations »*

Décembre 2006

Hizkuntza politika proiektua

*« Hiztun osoak helburu,
haur eta gazteak
lehentasun »*

2006eko abendua



Office public de
la langue basque

« Définir et mettre en œuvre une politique publique en faveur de la langue basque »

Telle est la mission confiée à l'Office Public de la Langue Basque, créé en décembre 2004 sous forme de Groupement d'Intérêt Public (GIP) associant l'Etat, le Conseil Régional d'Aquitaine, le Département des Pyrénées-Atlantiques, le Syndicat intercommunal de soutien à la culture basque et le Conseil des Elus du Pays Basque.

Cette structure juridique, dont l'existence même était le préalable indispensable à toute initiative réellement efficace, s'est dotée depuis d'un certain nombre d'outils : un budget, une équipe permanente, un réseau structuré de techniciens de la langue avec les Communautés de Communes du Pays Basque, un partenariat transfrontalier ambitieux avec la Communauté Autonome d'Euskadi.

Des initiatives nouvelles pour les pouvoirs publics ont également été prises dans le domaine de la programmation pluriannuelle de l'enseignement du basque et en basque et de la promotion de la langue dans la vie sociale.

Cette structuration progressive de l'action publique restait cependant inachevée sans la définition d'une politique globale fixant les orientations et les axes de travail à conduire.

C'est l'objet de ce projet de politique linguistique, fruit d'une démarche concertée avec les opérateurs de la langue basque, qui a été approuvé **le 21 décembre 2006**, à l'unanimité des membres du Conseil d'Administration de l'Office Public de la Langue Basque.

Ce projet constitue désormais le cadre de référence de l'action publique dont il faudra régulièrement mesurer l'impact sur l'évolution de la langue, sa présence et sa pratique.

L'Office Public mobilisera tous ses efforts pour assurer la mise en œuvre de ce projet afin qu'il devienne réalité et que sa concrétisation stimule et oriente à son tour les politiques à venir.

Un objectif central : des locuteurs complets
Un cœur de cible : les jeunes générations

« Euskararen aldeko politika publiko baten zehaztea eta obratzea »
Haxe da Euskararen Erakunde Publikoari eman eginkizuna, Interes Publikoko Elkargo gisa sortzen delarik 2004ko abenduan, bere baitan elkartzen dituela Frantses Estatua, Akitania-Eskualdeko Kontseilua, Pirinio-Atlantikoetako Departamendua, euskal kultura sustengatzen duen herriarteko Sindikatua eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua.

Egitura juridiko horren sortzea ezinbestekoa zen ekimen eraginkorrek aitzina eraman ahal izateko. Geroztik, Erakunde Publikoak hainbat tresna abian jarri ditu : aurrekontu bat, lantalde iraunkor bat, euskara teknikarien sare egituratu bat ipar Euskal Herriko Herri Elkargoekin eskuz esku, emankorra izan nahi duen mugaz gaindiko lankidetzat bat Euskal Autonomia Erkidegoarekin.

Horrez gain, botere publikoen ikuspegitik berriak diren hainbat ekimen obratu dira euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren epe luzeko programazioaren alorrean, bai eta gizarte-bizitzan euskararen sustatzeko ere.

Halere, ekintza publikoaren urratsez-urratseko egituratze hori burutugabe geldituko zen, hartu beharreko norabideak eta eraman beharreko lan-ardatzak finkatzen dituen politika orokorrik ez balitz definitu.

Horixe da preseski hizkuntza politika proiektu honen helburua, euskalgintzako eragileekin eskuz esku eraman urraspide baten emaitza dena, eta EEPko Administrazio Kontseiluko kideek joan den **2006ko abenduaren 21ean** aho batez adostu dutena.

Hemendik aitzina, egitasmo hau izanen da ekintza publikoa bideratuko duen erreferentziatzko markoa. Gisa horretan eraman urratsen eragina erregularki neurtu beharko da, dela euskararen bilakaeran, dela haren presentzian eta erabileran.

Erakunde Publikoak bere indar guziak proiektu honen obratzearen zerbitzuko ezarriko ditu, xedea errealitate bihur dadin, eta geroari begira, egitasmoaren gauzatzeak akuila eta bidera ditzan etorkizunean plantan jarriko diren politikak.

Hiztun osoak helburu
Haur eta gazteak lehentasun

Sommaire

Avant-propos	3
Partie 1. Transmettre la langue	19
Enjeu 1. Transmission familiale	24
Enjeu 2. Petite enfance	28
Enjeu 3. Enseignement	31
Partie 2. Vivre la langue	37
Enjeu 4. Médias	42
Enjeu 5. Loisirs	47
Enjeu 6. Edition	53
Enjeu 7. Toponymie	59
Enjeu 8. Place de la langue dans la vie sociale	64
Partie 3. Fortifier la langue	69
Enjeu 9. Apprentissage des adultes	74
Enjeu 10. Qualité de la langue	79
Enjeu 11. Recherche	85
Enjeu 12. Motivation	88
Conclusion	97
Annexes	105
Annexe 1. Le dispositif légal et réglementaire relatif aux langues régionales	106
Annexe 2. La programmation pluriannuelle de l'offre d'enseignement	108
Annexe 3. Les indicateurs du projet de politique linguistique	114

Aurkibidea

Aitzin-solasa	3
1. zatia. Euskara transmititu	19
1. erronka. Familia bidezko transmisioa	24
2. erronka. Lehen haurtzaroa	28
3. erronka. Irakaskuntza	31
2. zatia. Euskaraz bizi	37
4. erronka. Hedabideak	42
5. erronka. Aisialdia	47
6. erronka. Argitalpena	53
7. erronka. Toponimia	59
8. erronka. Euskararen tokia bizitza sozialean	64
3. zatia. Euskara bizkortu	69
9. erronka. Helduen euskalduntzea	74
10. erronka. Euskararen kalitatea	79
11. erronka. Ikerkuntza	85
12. erronka. Motibapena	88
Bururatzeko	97
Eranskinak	105
1. eranskina. Tokiko hizkuntzei buruzko araubidea	106
2. eranskina. Irakaskuntza eskaintzaren epe luzeko programazioa	108
3. eranskina. Hizkuntza politika proiektuaren adierazleak	114

Sommaire

Avant-propos

Aitzin-solasa

AV
AN
T

Un projet de politique linguistique qui marque une nouvelle étape dans la structuration progressive d'une politique publique en faveur de la langue basque

PR
OP
OS

Dans les années 90, de très nombreux acteurs du Pays Basque, institutions, élus et représentants de la société civile, réunis dans une même démarche collective de prospective territoriale, se sont mis d'accord pour considérer la langue et la culture basque comme un des atouts importants du développement du Pays Basque.

Dans la continuité de cette réflexion, le Schéma d'aménagement et de développement du Pays Basque, document stratégique et opérationnel, formalisait en 1997 au sein d'un chapitre intitulé « Aménagement linguistique », un certain nombre d'orientations et d'opérations destinées à la promotion et au développement de la langue basque. Au même titre que les autres domaines de l'action publique, la langue basque s'inscrivait ainsi pour la première fois de manière officielle au cœur du projet territorial.

A la signature de la Convention Spécifique Pays Basque, procédure contractuelle retenue pour mettre en œuvre les opérations du schéma d'aménagement, l'Etat et les collectivités territoriales, en cohérence avec la démarche précédemment engagée, adoptaient sous la dénomination « Politique linguistique », un programme concerté d'aide et de soutien à des opérateurs publics ou privés oeuvrant au service du développement de la langue basque. Dans le même temps, un nouveau pas était franchi avec la création de la Maîtrise d'Ouvrage Publique pour la politique linguistique, rassemblant, depuis le début de l'année 2001, l'Etat, la Région, le Département, le Conseil des élus et le Syndicat intercommunal de soutien à la culture basque

AIT
ZIN

SO
LAS
A

Euskararen aldeko politika publiko bat urratsez-urrats egituratzeko bidean, etapa berri bat markatzen duen hizkuntza politika egitasmoa

1990. hamarkadan, lurralde prospektibako urraspide berean bildu Euskal Herriko eragile anitz – instituzio, hautetsi eta gizarte zibileko ordezkari – ados jarri ziren euskara eta euskal kultura Euskal Herriko garapenerako abantaila garrantzitsutzat hartzeko.

Gogoeta horri jarraipena emanez, dokumentu estrategikoa eta eraginkorra zen Euskal Herriko Antolaketa eta Garapen Eskemak, 1997an, « Hizkuntza antolaketa » deitu atal batean, euskararen sustapena eta garapenaren aldeko hainbat norabide eta operazio egituratu zituen. Ekintza publikoko beste eremuak bezala, lehen aldikotz euskara lurralde egitasmoaren baitan ofizialki barneratua zen.

Euskal Herriko Hitzarmen Berezia izenpetu orduko – oroitaraz dezagun Hitzarmen Berezia antolaketa eskemako operazioen obratzeko hautatu kontratu-prozedura dela -, Estatuak eta lurralde elkargoek, aurretik abiatu urraspidearekin bat eginez, euskararen garapenaren zerbitzuko ari ziren eragile publikoentzat nahiz pribatuentzat laguntza eta sustengu programa hitzartu bat onetsi zuten, « Hizkuntza politika » izenburupean. Denbora berean, urrats berri bat egin zen hizkuntza politikarako Obragintza Publikoaren sortzearekin, 2001. urtearen hasieraz geroztik Estatua, Eskualdea, Departamendua, Hautetsien Kontseilua

Quatre ans plus tard, afin d'inscrire cette organisation dans la durée au-delà d'un seul programme d'actions, les partenaires publics ont souhaité donner un caractère pérenne à ce dispositif en créant un organisme de droit public ayant pour mission explicite d'élaborer, de définir et de mettre en œuvre une politique linguistique pour la langue basque. C'est ainsi que les communes du Pays Basque, regroupées au sein d'un syndicat, les élus du Pays Basque représentés par le Conseil des élus, le Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques, le Conseil Régional d'Aquitaine et l'Etat agissant dans une démarche interministérielle associant les Ministères de l'Intérieur, de la Culture et de l'Education Nationale, ont constitué un groupement d'intérêt public, aujourd'hui dénommé Office Public de la Langue Basque.

A la mise en place de l'Office Public de la Langue Basque en décembre 2004, il avait été convenu de mettre à profit les deux premières années de fonctionnement afin de répondre aux objectifs suivants :

Honorer les engagements pris par les partenaires institutionnels dans le cadre de la Convention Spécifique et poursuivre jusqu'à la fin 2006 la mise en œuvre du volet linguistique.

Expérimenter les missions nouvelles prévues dans les textes fondateurs :

Structuration et développement de l'enseignement du basque et en basque, dans le cadre de la convention signée entre le Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques et le Ministère de l'Education Nationale, s'appuyant sur l'Office Public en tant que cellule opérationnelle.

Promotion de l'usage du basque dans la vie sociale.

Poursuivre le partenariat institutionnel initié par la Maîtrise d'Ouvrage Publique avec la Communauté Autonome d'Euskadi.

Lau urte berantago, antolaketa hori iraupenean finkatzeko asmoz, ekintza programa bakar batetik hara, partaide publikoek dispositibo hori iraunkor bilakatu nahi izan dute zuzenbide publikoko erakunde bat sortuz eginkizun berezi batekin : euskararen aldeko hizkuntza hizkuntza politika baten lantzea, definitzea eta obratzea. Hala, sindikatu batean bildu Euskal Herriko udalek, Euskal Herriko hautetsiek Hautetsien Kontseiluak ordezkaturik, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak, Akitania Eskualdeko Kontseiluak eta Estatuak - Barne, Kultura eta Hezkunde Nazionalako Ministerioak elkartzen dituen ministerioen arteko urraspide batean arituz - interes publikoko elkargo bat osatu dute, gaur egun Euskararen Erakunde Publikoa deitua dena.

Euskararen Erakunde Publikoa eratzerakoan, 2004ko abenduan, denak ados jarri ziren lehen bi urteetan ondoko helburuei erantzuteko :

Hitzarmen Bereziaren baitan instituzio-partaideek hartu engaiamenduen betetzea eta hizkuntza atalaren obratzeari jarraitzea 2006. urtea bururatu arte.

Hitzarmen sortzaileetan aurreikusten diren eginkizun berrien esperimentatzea :

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egituratzea eta garatzea Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak eta Hezkunde Nazionalako Ministerioak izenpetu hitzarmenaren baitan, Erakunde Publikoa obratzaile gisa hartuz.

Euskararen erabilpenaren sustapena gizarte-bizitzan.

Obragintza Publikoak Euskal Autonomia Erkidegoarekin abiatu zuen instituzio-partaidetzari jarraitzea.

Préparer la période 2007-2010 par l'élaboration d'une nouvelle politique linguistique.

Cette feuille de route fixée par le Conseil d'Administration de l'Office a été pleinement respectée. Parmi les éléments les plus significatifs, on peut noter :

Les opérations de la Convention Spécifique ont toutes été menées à terme.

La programmation pluriannuelle de l'enseignement du basque et en basque a été adoptée en octobre 2005 et sa mise en œuvre a pu être initiée dès la rentrée 2006.

Des premières conventions de partenariat visant une plus grande utilisation de la langue basque ont été formalisées avec des opérateurs publics et privés.

Un réseau de techniciens de la langue se déploie progressivement afin d'assurer au plus près du terrain un travail d'animation au service de la promotion de la langue basque, en partenariat avec les collectivités locales.

Le partenariat avec la Communauté Autonome d'Euskadi s'est développé et la signature d'un nouvel accord de coopération entre l'Office Public de la Langue Basque et le Ministère de la Culture du Gouvernement Basque est prévue début janvier 2007.

Tout au long de cette période, et souvent bien avant, de nombreux organismes, pour la plupart associatifs, travaillant dans le domaine de l'action linguistique, ont largement précédé, accompagné et stimulé ces différentes évolutions. Ils ont multiplié leurs actions dans de nombreux secteurs et créé de nombreux outils : enseignement, activités périscolaires, apprentissage du basque aux adultes, travaux de recherche sur la langue, médias, édition, utilisation du basque dans la vie sociale. production de matériel

2007-2010 epea prestatu, hizkuntza politika berri bat landuz.

Erakundeko Administrazio Kontseiluak finkatu ibilbide-orria osoki errespetatua izan da. Elementurik adierazgarrienen artean, honako hauek azpimarra daitezke :

Hitzarmen Bereziaren operazio guziak bururatuak izan dira.

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren urte anitzeko programazioa 2005eko urrian onartua izan da, eta 2006ko eskola-sartzean berean obratzen hasi.

Euskararen erabileraren zabaltzea helburu daukaten lehen partaidetza-hitzarmenak gauzatu dira eragile publiko nahiz pribatu batzuekin.

Euskara teknikarien sare bat urratsez-urrats hedatzen ari da euskararen sustapenaren alde tokian tokiko animazio lan baten segurtatzeko, eskualdeko aginteekin partaidetzan.

Partaidetza indartu da Euskal Autonomia Erkidegoarekin. Euskararen Erakunde Publikoaren eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren arteko lankidetzak hitzarmen berri baten izenpetzea 2007ko urtarilaren hastapenerako aurreikusia da.

Garai horretan, eta batzuetan askoz ere lehenago, euskalgintzan ari diren erakunde anitzek – gehienak elkarteak izanik - aldaketa horiek guziak aurreratu, lagundu eta sustatu dituzte. Alor askotan ekintza ugari eraman dituzte eta lantresna berriak sortu : irakaskuntza, eskolaz kanpoko iharduerak, helduen euskalduntzea, euskarari buruzko ikerlanak, hedabideak, argitalpena, euskararen erabilera gizarte-bizitzan, ikastresnen ekoizpena...

Pour autant, ces initiatives et cette mobilisation croissante n'ont pas permis d'enrayer de manière significative le déclin de la langue : le nombre de locuteurs décroît, la transmission au sein de la structure familiale ne fonctionne plus et la pratique est en recul dans toutes les zones géographiques du Pays Basque.

Heureusement ce processus de disparition progressive de la langue basque ne paraît pas irréversible. En effet plusieurs éléments permettent d'espérer qu'un effort vigoureux mené dans les quinze ans qui viennent, pourra éviter à la langue basque en Pays Basque de France un déclin irrémédiable.

Il revenait aux pouvoirs publics le devoir et la responsabilité d'orienter cet effort, d'officialiser la démarche et de fixer un cadre et une méthode pour une nouvelle politique publique visant à sauver et à revitaliser la langue basque.

C'est à cet objectif que répond le projet de politique linguistique qui acte ainsi une étape importante dans la structuration d'une politique publique en faveur de la langue basque.

Un projet de politique linguistique qui se fonde sur une analyse sociolinguistique et qui s'inscrit dans un contexte

La langue basque, euskara, l'une des plus anciennes du continent européen, parlée par les Basques depuis des millénaires, facteur déterminant de leur identité, est aujourd'hui présente sur une aire géographique qui relève d'organisations administratives et de législations très différentes.

Il revient aux autorités publiques de chacun des territoires concernés de définir librement la politique à mener en matière linguistique. Ce principe reste parfaitement compatible avec le respect du caractère particulier de la langue basque et de la culture basque en général qui constituent de fait un patrimoine

Alta, ekimen horiek eta emendatuz doan mobilizazioak ez dute euskararen gainbehera geldiarazi : hiztunen kopurua ttipitzen ari da, familia bidezko transmisioak ez du gehiago funtzionatzen eta erabilera Euskal Herriko eskualde guzietan gibelatzen da.

Beharrik, badirudi euskararen desagertze prozesu hori ez dela atzeraezina. Izan ere, hainbat elementuk pentsara ematen dute, datozen hamabost urteetan sekulako indarrak eginez geroz, ipar Euskal Herrian euskara gainbehera itzulezin batetik salba daitekeela.

Orduan, botere publikoei zegozkien indar horien bideratzea, urraspideari ofizialtasunaren ematea, euskararen salbatzeko eta berpizteko politika publiko berri baterako egitura nahiz metodo baten finkatzeko eginbidea eta ardura.

Hizkuntza politika egitasmoak helburu honi erantzuten dio, euskararen aldeko politika publiko baten egituratzeko bidean urrats nagusi bat osatuz.

Azterketa soziolinguistiko batean oinarritua eta testuinguru batean sartzen den hizkuntza politika egitasmoa

Euskara Europako hizkuntza zaharrenetarikoa da, Euskaldunek milaka urtez mintzatua, euskal nortasunaren giltzarria. Gaur egun, administrazio antolaketa eta legeria oso ezberdinek kudeatua dagoen eremu geografiko batean kokatua da.

Lurralde bakoitzeko agente publikoei dagokie hizkuntza alorrean eraman beharreko politikaren libreki definitzea. Printzipio hau, euskarak eta orokorki euskal kulturak ondare historiko amankomuna osatzen dutelako berezitasunaren errespetuarekin osoki bateragarria da.

Particularité que les pouvoirs publics français regroupés au sein de l'Office Public de la Langue Basque et la Communauté Autonome d'Euskadi compétente en la matière sur son propre territoire ont déjà officiellement pris en compte en formalisant un accord de coopération transfrontalier original et ambitieux dans le domaine de la langue basque.

Le projet de politique linguistique adopté par l'Office Public de la Langue Basque, pour être mis en œuvre, sur son territoire, fournira sans nul doute de nombreuses autres possibilités de développer des partenariats institutionnels transfrontaliers fondés sur le respect mutuel des prérogatives de chacun, et sur la volonté partagée de travailler à la sauvegarde et au développement d'une langue commune.

De ce côté-ci de la frontière, la langue basque subit depuis plusieurs décennies un déclin rapide.

Le nombre de ces locuteurs s'est réduit de 15 000 en dix ans (entre 1991 et 2001), il doit représenter aujourd'hui moins du quart de la population totale vivant au Pays Basque. Par ailleurs, le nombre proportionnellement important des personnes de plus de 65 ans parmi ces locuteurs ne présage pas d'un retournement de tendance immédiat.

Le constat est simple : la langue basque ne survivra pas si le nombre de locuteurs n'arrête pas dans un premier temps de décroître, et s'il n'augmente pas dans un second temps.

Accroître le nombre de locuteurs est donc bien l'objectif premier que doit chercher à atteindre une politique linguistique visant à sauvegarder la langue basque.

Cette approche quantitative n'est pas suffisante.

La transmission familiale naturelle qui a assuré jusqu'ici la vitalité de la langue ne fonctionne plus que de manière marginale. Parmi les bascophones, ceux dont le basque est la langue maternelle

Berezitasun hau, Euskararen Erakunde Publikoaren baitan bilduak diren botere publiko frantsesek eta bere lurraldean eskuduntza duen Euskal Autonomia Erkidegoak ofizialki kontuan hartua dute, mugaz gaindiko lankidetzak akordio berritzailea eta handinahia gauzatuz euskararen alorrean.

Ez da dudarik Euskararen Erakunde Publikoak onartu duen hizkuntza politika egitasmoak, bere lurraldean obratzearekin, mugaz gaindiko instituzio-partaidetzen zabaltzeko beste aukera anitz emanen dituela, partaidetza horiek bakoitzaren eskubideen errespetuan oinarrituak izanen direlarik, eta hizkuntza amankomun baten babesteko eta garatzeko nahikunde partekatuan.

Mugaren alde honetan, hainbat hamarkadaz geroztik euskarak gainbehera azkarra jasaten du.

Hamar urtez, 15 000 hiztun galdu dira (1991 eta 2001 bitartean), gaur egun hiztunen kopuruak Euskal Herriko biztanlegoaren laurden bat baino gutxiago osatzen du. Bestalde, hiztun horien artean aurkitzen diren 65 urtetik gorako pertsonen kopuru handia ikusi eta, pentsatzekoa da joera aldaketarik ez dela berehala gertatuko.

Egoera nabari da : euskarak ez du bizirik iraunen, lehen epe batean hiztunen kopurua beheitizetik gelditzen ez bada, eta bigarren epe batean emendatzen ez bada.

Beraz, hiztunen kopuruaren emendatzea da euskara babestu nahi duen hizkuntza politika batek lortu behar duen lehen helburua.

Planteamendu kantitatibo hori ez da aski.

Hizkuntzaren bizkortasuna orain arte segurtatu duen familia transmisio naturalak gero eta gutxiago funtzionatzen du. Euskaldunen artean, euskara ama hizkuntza dutenen kopurua

sont de moins en moins nombreux et ceux qui se sentent moins à l'aise dans l'utilisation du basque que dans celle du français sont devenus largement majoritaires.

Un niveau de maîtrise insuffisant en langue basque génère de fait, dans de nombreuses circonstances, une plus faible pratique de la langue. La langue ne vit que par les locuteurs qui la connaissent, et ces derniers ne font vivre la langue que s'ils la pratiquent.

C'est pourquoi ce projet de politique linguistique se fonde aussi sur une approche qualitative visant l'accroissement du nombre de locuteurs complets :

Complet, parce que la personne concernée atteindra un niveau suffisant en terme de motivation, de connaissance et d'usage ;

Complet, lorsque la personne concernée éprouvera le désir de communiquer en basque, disposera de la compétence nécessaire pour le faire en toute circonstance, et décidera de l'utiliser effectivement.

C'est aussi en prenant en compte le contexte que ce projet de politique linguistique fait un choix stratégique majeur en positionnant les jeunes générations au cœur des orientations définies.

La quasi-disparition de la transmission naturelle invite forcément à rechercher l'accroissement du nombre de locuteurs complets au sein des nouvelles générations. Mais ce choix stratégique se fonde aussi sur un certain nombre de réalités.

Le renforcement du dispositif d'enseignement de la langue basque à l'école est déjà ancien. Les élèves des classes maternelles et primaires bénéficiant d'un enseignement du basque au sein des écoles publiques, de l'enseignement catholique ou des ikastola ont vu leurs effectifs doubler en une décennie et représentent aujourd'hui plus d'un quart de la population scolaire concernée.

ttipitzen ari da eta frantsesa euskara baino hobeki menperatzen dutenak nagusi dira.

Nahitaez, euskararen menperatze maila urriak, askotan, hizkuntzaren erabilera ahulagoa sortzen du. Hizkuntza ezagutzen duten hiztunen bidez baizik ez da bizi, eta azken hauek hizkuntza erabiliz baizik ez dute bizi arazten.

Horrengatik hizkuntza politika egitasmo hori hiztun osoen kopurua emendatu nahi duen planteamendu kalitatibo batean ere oinarritua da :

Hiztun osoa da motibazio, ezagutza eta erabilera maila nahiko batera heltzen den pertsona ;

Hiztun osoa erranen zaio euskaraz komunikatzeko gogoia, edozein egoeratan euskaraz aritzeko trebetasuna eta euskara benetan erabiltzea erabakiko duen pertsonari.

Testuingurua kontuan hartuz, hizkuntza politika egitasmo honek hautu estrategiko nagusi bat egiten du, finkatu dituen norabideetan, lehentasuna belaunaldi gazteei emanez.

Berezko transmisioa desagertzeaz izateak, nahi ala ez, belaunaldi berrien baitan hiztun osoen kopuruaren emendatzera bultzatzen gaitu. Baina hautu estrategiko hori beste errealitate batzutan ere oinarritua da.

Euskara eskolan irakasteko dispositiboaren sendotzea jada aspaldikoa da. Eskola publikoetan, katolikoetan edo ikastoletan euskararen irakaskuntza hartzen duten ama-eskola eta lehen mailako ikasleen kopurua bikoiztu da hamarkada batez, gaur egun ikasle goaren laurdena baino gehiago osatuz.

La demande sociale des familles alimente, à chaque ouverture d'une nouvelle classe, la structuration progressive d'une offre d'enseignement dans le respect du principe de cohérence territoriale.

Le développement de l'enseignement du basque à l'école a déjà produit ses premiers effets puisque le déclin de la langue semble aujourd'hui enrayé au niveau des classes d'âge les plus jeunes.

Le phénomène est d'autant plus intéressant qu'il prouve que le déclin n'est pas irrémédiable et qu'un jeune apprenant le basque à l'école et devenant lui-même parent quelques années plus tard, peut à court terme relancer la transmission familiale, condition essentielle à la pérennité du processus de revitalisation.

D'où le choix explicite de rechercher l'accroissement de locuteurs complets en ciblant plus particulièrement les jeunes générations.

Cette prise en compte du contexte sociolinguistique débouche sur une "formule-épigraphe", véritable gouvernail de l'ensemble du projet, qui guide sa construction et sa mise en œuvre en fixant :

**UN OBJECTIF CENTRAL : DES LOCUTEURS COMPLETS
UN CŒUR DE CIBLE : LES JEUNES GÉNÉRATIONS**

L'Office Public de la Langue Basque, organisme public associant l'Etat et les collectivités territoriales se devait de faire en sorte que la définition des orientations de son projet de politique linguistique ainsi que de ses déclinaisons opérationnelles s'inscrivent bien dans le cadre légal en vigueur et s'appuient sur les dispositifs réglementaires existants.

L'action des pouvoirs publics en faveur de la langue basque doit se fonder sur le respect de la libre adhésion de tous les acteurs sociaux et le volontariat des locuteurs. Ce principe s'applique à l'en

Gela berri bat irekitzen den bakoitzean, familien giza-eskaerak irakaskuntza eskaintza bat urratsez-urrats egituratzea sostengatzen du, lurralde koherentziaren printzipioari jarraikiz.

Eskolan euskararen irakaskuntzaren garapenak lehen emaitzak erakusten ditu, alabaina iduri du belaunaldi gazteen baitan hizkuntzaren gainbehera gelditu dela.

Gertakari hau interesgarria da bi gauza frogatzen baititu : alde batetik, gainbehera ez dela itzulezina ; bestetik, euskara ikasten duen gazte batek, urte batzuen buruan guraso bilakatzean, epe laburrean familia transmisioa berpizten ahalko duela, hauxe baita hizkuntzaren indarberitze urraspidearen iraunkortasunari buruzko baitezpadako baldintza.

Horregatik da ezinbestekoa hiztun osoen kopurua emendatzea belaunaldi gazteak bereziki jomugatzat hartuz.

Testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartze horren ondorioa da lema hau, egitasmo osoaren egiazko iparrorratza dena, eraikuntza nahiz obratzea gidatuz :

**HELBURU NAGUSI BAT : HIZTUN OSOAK
LEHENTASUN BAT : BELAUNALDI GAZTEAK**

Euskararen Erakunde Publikoak, Estatu eta tokiko aginteak elkartzen dituen egitura publikoa izanik, eginbidea zuen bere hizkuntza politika egitasmoaren norabideen definizioa eta deklinabide operatiboak kokatzeko indarrean dagoen legeriaren baitan eta oraingo araudi neurrietan.

Botere publikoen euskararen aldeko ekintza gizarte-eragile guzien hautu librearen eta hiztunen nahikundearen errespetuan oinarritu behar da. Printzipio hau hizkuntza politika proiektu osoari aplikatzen

AV
AN
T

l'ensemble du projet de politique linguistique qui prend également en compte les lois et autres textes officiels faisant référence aux langues régionales (cf annexe).

PR
OP
OS

Si le cadre juridique relatif aux langues régionales venait à s'étoffer par l'approbation de nouveaux textes, il conviendra de revisiter les orientations et les axes de travail du projet et de les adapter le cas échéant.

A ce jour, la réussite de la mise en œuvre du projet de politique linguistique de l'Office Public se situe au croisement permanent du caractère volontariste et ambitieux de la démarche, qu'il convient en permanence de rappeler et d'illustrer dans les actes, et de la pleine liberté pour les citoyens et les opérateurs publics ou privés d'y adhérer ou pas.

C'est la prise en compte de ce contexte dans ses dimensions géopolitiques, sociolinguistiques et juridiques qui donne du sens à cette nouvelle politique linguistique, qui en fixe les principes et qui fonde les objectifs stratégiques et opérationnels retenus.

Un projet de politique linguistique qui se veut partagé et concerté

Ce projet de politique linguistique a été nourri par toute une série d'échanges et d'études préalables, de pratiques et d'expériences acquises, ainsi que par de nombreuses réflexions collectives.

Pendant six années, la Convention Spécifique Pays Basque a jeté les bases d'une démarche concertée entre les pouvoirs publics et a constitué ce socle commun sur lequel les partenaires institutionnels ont construit leur engagement en faveur de la langue basque.

AIT
ZIN

aplikatzen zaio, eta egitasmoak herri hizkuntzak aipatzen dituzten legeak eta beste testu ofizialak ere kontuan hartzen ditu (ik. eranskina).

SO
LAS
A

Testu berri batzu onartuz tokiko hizkuntzei dagokien esparru juridikoa zabalduko balitz, egitasmoaren norabideak eta lan-ardatzak berrikusi eta egokitu beharko liriateke.

Gaur egun, Erakunde Publikoaren hizkuntza politika egitasmoaren arrakasta bi printzipioen juntan dago betiere : alde batetik, urraspide bultzatzailea, etengabe orotarazi eta ekintzetan agerian eman behar dena, eta bestetik hiritarrek, eragile publikoek eta pribatuek egitasmoarekin bat egiteko daukaten askatasun osoa.

Testuingurua bere alderdi geopolitiko, soziolinguistiko eta juridikoekin kontuan hartzeak, hizkuntza politika berri honi zentzua ematen dio, politika honen printzipioak finkatzen ditu, hautatu helburu estrategikoak eta operatiboak oinarritzen.

Partekatua eta hitzartua izan nahi duen hizkuntza politika egitasmoa

Hizkuntza politika egitasmo hau iturburu anitzek elikatua dute : aurretik egin trukaketak eta ikerketak, praktikak eta erdietsi esperientziak, bai eta ere taldeetan eraman diren gogoeta anitz.

Sei urtez, Euskal Herriko Hitzarmen Bereziak botere publikoen arteko urraspide adostu baten oinarria finkatu du eta instituzio-partaideek oinarri amankomun horren gainean eraiki dute euskararen aldeko beren engaiamendua.

Depuis deux ans, ces mêmes partenaires réunis au sein de l'Office Public ont tiré parti des initiatives importantes et souvent innovantes qui ont été prises dans le domaine de la structuration de l'enseignement du basque et en basque et celui de la promotion du basque dans la vie sociale.

Depuis 2003, la formalisation et le développement des relations de travail régulières avec la Communauté Autonome d'Euskadi ont apporté un éclairage complémentaire et instructif aux dispositifs mis en place de ce côté de la frontière.

Les nombreux contacts avec des institutions et des opérateurs associatifs issus d'autres régions qui ailleurs en France sont aussi concernés par la pratique d'une langue régionale ont également contribué aux analyses et réflexions.

Enfin les deux phases organisées de concertation avec les membres du Comité Consultatif de l'OPLB ont été extrêmement précieuses :

Une première série d'une dizaine de réunions auxquelles ont participé une centaine de personnes et plusieurs rencontres avec des opérateurs linguistiques, des techniciens d'organismes publics ou des personnes ressources, ont permis jusqu'à l'été 2006 de recueillir divers témoignages, points de vue et propositions.

A l'issue de la présentation d'un pré-projet validé par le Conseil d'Administration de l'OPLB en octobre 2006, plus d'une vingtaine de contributions ont été formalisées et adressées à l'OPLB. Toutes ont été examinées, et la version définitive du projet s'en est trouvée significativement enrichie, adaptée ou précisée.

Bi urtez geroztik, Erakunde Publikoaren baitan bildu partaide berek probetxu zerbait atera dute euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egiturazetik eta gizarte-bizitzan euskararen sustapenaren alorrean hartu diren ekimen garrantzitsu eta maiz berritzaileetarik.

2003az geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoarekin lan-harreman jarraikien gorpuzteak eta garapenak ipar Euskal Herrian obratu neurriei dirdira gehigarria eta ikasgarria ekarri diete.

Herri hizkuntza bat praktikatzen duten Frantziako beste eskualdeetako erakunde eta elkarte-eragileekilako harremanek ere ekarpen berezi bat eskaini diete azterketei eta hausnarketei.

Azkenik, EEP-ko Aholku Batzordeko kideekin antolatu bi hitzartze-faseak garrantzi handikoak izan dira :

Lehen bilkura andana bati esker, ehun bat pertsona bildu ziren hamar bat multzotan ; gainera euskalgintzako eragile batzuekin, erakunde publikotako teknikari batzuekin edo pertsona-iturri batzuekin hainbat elkarrizketa antolatu ziren. Harreman horiei esker, lekukotasun, ikuspuntu eta proposamen ezberdinak bilduak izan dira 2006ko uda arte.

EEP-ko Administrazio Kontseiluak 2006ko urrian baieztatu aitzin-proiektu bat aurkeztuz gero, hogeitaz ekarpen baino gehiago landu dira eta EEP-ra igorri. Denak aztertuak izan dira, eta ondorioz egitasmoaren behin betiko bertsioa aberastua, egokitua edo zehaztua izan da.

AV
AN
T

Le recours à cette méthode participative pour la phase d'élaboration du projet de politique linguistique devra également prévaloir pour la phase de mise en œuvre.

PR
OP
OS

Pendant de longues années, les associations ont créé, porté et développé les dispositifs les plus structurants de l'action linguistique dans de nombreux domaines.

La politique publique, aujourd'hui en phase de déploiement, ne vise pas à se substituer à l'initiative associative. Elle se doit au contraire de la consolider et de l'accompagner, dans un souci de complémentarité et de cohérence avec les orientations fixées par les pouvoirs publics.

La situation de la langue basque est aujourd'hui trop critique pour prendre le risque de pratiques concurrentes qui nuiraient à l'efficacité de la démarche, et qui surtout affaibliraient l'adhésion de la société, si nécessaire à la réussite des actions menées par les uns et par les autres.

Au delà des aides financières affectées aux opérateurs, l'Office Public souhaite maintenir des relations étroites avec les acteurs associatifs de la langue basque : mobilisations d'expertises techniques, comptables ou juridiques, réflexions prospectives, expérimentations de nouveaux outils...

La mise en oeuvre du projet de politique linguistique sera d'autant plus active et efficace qu'elle saura articuler de manière complémentaire les initiatives prises à 3 niveaux différents :

Les activités initiées par l'Office Public

Elles correspondent à toutes les opérations du projet de politique linguistique qui relèveront d'une maîtrise d'ouvrage assurée par l'Office.

AIT
ZIN

Hizkuntza politika egitasmoaren apailatze bidean erabili den parte-hartze eginmoldeak, obratze urratsetan ere nagusi izan beharko du.

SO
LAS
A

Luzaz elkarteek euskalgintzako antolaketa egituratzaileenak sortu dituzte, eraman eta garatu alor anitzetan.

Hedatzen ari den politika publikoak ez du elkarte-ekimena ordezkatu nahi. Alderantziz, elkarte-ekimena sendotu eta lagundu nahi du, botere publikoek finkatu dituzten norabideekin osagarritasuna eta koherentzia bermatuz.

Euskararen egoera larriegia da gaur egun lehia batean sartzeko arriskuaren hartzeko, alde batetik urraspideari kalte eginen bailiokete eta, bestetik, batzuk eta bestek eraman dituzten ekintzen arrakastari ezinbestekoa zaion gizartearen onarpena ahulduko bailukete.

Eragileei eman diru-laguntzez gain, Erakunde Publikoak euskararen alorreko elkarte-eragileekin dauzkan harreman hertsia atxiki nahi ditu : jakintza tekniko, kontable edo juridikoen antolatzea, gogoeta prospektiboak, tresna berri batzuen esperimentatzea...

Hizkuntza politika egitasmoaren obratzea eraginkorragoa izanen da hiru maila desberdinetan hartu ekimenak modu osagarrian uztartzen baldin badakigu :

Erakunde Publikoak abiatu iharduerak

Sail horretan sartzeko dira Erakundeak eramaten duen obragintzaren pean kokatzen diren hizkuntza politika proiektuaren egintza guztiak.

AV
AN
T

Elles portent prioritairement sur toutes les fonctions d'animation et, de structuration dans les secteurs stratégiques où l'intervention publique peut s'avérer décisive.

PR
OP
OS

Les activités initiées par les collectivités locales

La proposition que l'Office Public a formulée aux collectivités locales de premier niveau, visant à structurer une politique publique cohérente à l'échelle des différents bassins de vie, a suscité une forte adhésion.

La stimulation et l'accompagnement des communes volontaires pour promouvoir l'usage du basque dans la vie municipale est l'objectif principal de ce dispositif qui devient également l'outil privilégié pour relayer à l'échelle du secteur concerné les autres opérations contenues dans le projet de politique linguistique de l'Office.

Les activités initiées par les opérateurs associatifs

L'émergence d'un nouveau cadre fixé par le projet de politique linguistique permettra de structurer de manière transparente les relations entre l'Office Public et les opérateurs associatifs. Les activités développées par ces derniers sont déjà compatibles pour la grande majorité d'entre elles avec les orientations fixées dans le projet. Ce nouveau cadre guidera désormais les partenariats techniques à initier ou à enrichir entre l'Office Public et les opérateurs, ainsi que l'affectation des aides financières.

Les critères seront ainsi connus de tous, et tout acteur de la vie sociale pourra y apporter sa contribution s'il le souhaite.

AIT
ZIN

SO
LAS
A

Esku-hartze publikoa erabakigarria izan daitekeen alor estrategikoen animazio eta egituratze funtzio guziak dira hemen lehenesten.

Tokiko aginteez abiatu iharduerak

Erakunde Publikoak lehen mailako tokiko elkargoei politika publiko koherente bat bizitza-guneetan egituratzea proposatu die ; eskaintzak onarpen zabala lortu du.

Herriko bizitzan euskararen erabilera sustatu nahi duten udalen sustengatzea eta laguntzea da neurri horien helburu nagusia. Berdenboran, lehentasunezko tresna bihurtzen dira Erakundearen hizkuntza politika egitasmoan dauden beste egintzei jarraipena emateko aipatu eremuetan.

Elkarte-eragileek abiatu iharduerak

Hizkuntza politika egitasmoak finkatu kuadro berria agertzearekin, Erakunde Publikoaren eta elkarte-eragileen arteko harremanak agerian egituratuko dira. Elkarrekin daramaten iharduera gehienak bateragarriak dira egitasmoan finkatu norabideekin. Kuadro berri horrek Erakunde Publikoaren eta eragileen artean abiatu edo aberastu beharreko partaidetza teknikoak gidatuko ditu eta diru-laguntzen banaketa erraztuko du.

Holaxe irizpideak denek ezagutuko dituzte eta gizarte-bizitzako edozein eragilek bere ekarpena eskaintzen ahalko du, nahi badu.

Le projet de politique linguistique :
étape importante dans la structuration progressive d'une politique
publique en faveur de la langue,
dispositif opérationnel qui se fonde sur une analyse et s'inscrit
dans un contexte,
et outil au service d'une démarche volontariste concertée et
partagée

se présente ainsi structuré :

un objectif central et un cœur de cible fixant tout à la fois le
but à atteindre « accroître le nombre de locuteurs complets » et
une stratégie principale « miser sur les jeunes générations ».

12 enjeux majeurs sont ensuite identifiés comme autant de
thématiques sur lesquelles il convient d'agir. Ils sont regroupés en
3 familles :

3 enjeux liés à la transmission de la langue :

Transmission familiale : « Mobiliser la cellule familiale sur sa
fonction stratégique de transmission de la langue ».

Petite enfance : « Construire avec les professionnels et les
structures de la petite enfance une offre de services soutenant la
transmission de la langue ».

Enseignement : « Structurer et développer l'apprentissage de la
langue grâce à l'école, outil indispensable à la transmission du
basque, tout à la fois langue enseignée et langue
d'enseignement ».

Hizkuntza politika egitasmoa :
hizkuntzaren aldeko politika publiko bat urratsez-urrats
egituratzeko bidean garrantziko etapa da ;
azterketan oinarritu eta testuinguruan barneratu antolaketa
eraginkorra da ;
hitzartua eta partekatua izan nahi duen urraspide bultzatzaile
baten zerbitzuko tresna da.

Egitasmoak honelako egitura dauka :

Helburu nagusi bat eta lehentasun bat finkatzen ditu:
bete beharreko helburua - "hiztun osoen kopurua emendatzea" -
eta estrategia nagusia - "belaunaldi gazteengan apostu egitea" .

12 erronka nagusi, begiztatuak dira hainbat egintza-gai gisa.
Hiru familian banatzen dira :

Hizkuntzaren transmisioari lotuak diren 3 erronka :

Familia bidezko transmisioa : « Familia, euskararen transmititzeko
tresna estrategiko gisa berreskuratu ».

Lehen haurtzarora : « Lehen haurtzaroko egiturekin eta
profesionalekin, hizkuntzaren transmisioaren zurkaitz izanen den
euskarazko zerbitzu eskaintza bat plantan jarri ».

Irakaskuntza : « Euskararen transmisioan baitezpadako tresna
bihurtu den eskolan, hizkuntzaren irakaskuntza garatu eta
egituratu, euskara aldi berean hizkuntza irakatsia eta
irakaskuntzarako hizkuntza izanki ».

5 enjeux liés à l'usage social de la langue :

Médias : « S'appuyer sur les médias pour faire vivre le basque dans la société et élever le niveau de langue ».

Loisirs : « Associer langue et plaisir grâce à l'utilisation de la langue dans les activités de loisirs ».

Edition : « Faciliter la structuration d'une chaîne opérante pour l'édition en langue basque au service d'une offre attractive et accessible ».

Toponymie : « Utiliser la toponymie comme une opportunité pour rendre la langue visible et attirer à elle de nouveaux publics ».

Place de la langue dans la vie sociale : « Promouvoir l'usage social du basque, pour que la langue apprise soit aussi une langue pratiquée, vue et entendue dans les lieux de vie ».

4 enjeux transverses liés à la vitalité de la langue :

Apprentissage des adultes : « Stimuler l'usage privé et professionnel en permettant aux adultes d'apprendre et de perfectionner la langue basque ».

Qualité de la langue : « Nourrir une ambition permanente au service de la qualité de la langue enseignée, pratiquée et diffusée ».

Recherche : « S'appuyer sur la recherche pour élever le niveau de qualité de la langue, pour renforcer la pertinence de l'action publique et pour accroître le rayonnement de la langue ».

Hizkuntzaren gizarte-erabilerari lotuak diren 5 erronka:

Hedabideak : « Hedabideak, euskara gizartean biziartzeko eta hizkuntzaren mailaren hobetzeko tresna bihurtu ».

Aisialdiak : « Aisialdi uneetan euskararen erabilpena sustatuz, hizkuntza eta gozamina uztartu ».

Argitalpena : « Euskarazko argitalpen kate eraginkorra egituratu, argitalpen eskaintza erakargarria eta eskura erraza jendetaratzeko gisan ».

Toponomia : « Toponimia, euskararen agerian jartzeko eta publiko berri baten euskarara erakartzeko aukera gisa baliatu ».

Hizkuntzaren lekua bizitza sozialean : « Gizartea euskaldundu, euskal hiztunek hizkuntza bizi sozialean baliatzeko, entzuteko eta ikusteko aukera ukan dezaten ».

Hizkuntzaren bizkortasunari lotuak diren 4 zeharkako erronka :
Helduen euskalduntzea : « Helduei, hizkuntzaren ikasteko eta hobetzeko aukerak eskainiz, euskararen erabilpen pribatua zein profesionala sustatu ».

Hizkuntzaren kalitatea : « Hizkuntzaren kalitatearen alde etengabeko indarrak egin, euskara irakastean, baliatzean edo zabaltzean ».

Ikerkuntza : « Ikerkuntzaz baliatu hizkuntzaren kalitate mailaren goratzeko, hizkuntza politikaren egokitasunaren azkartzeko eta hizkuntzaren zabalkundearen emendatzeko ».

AV
AN
T

Motivation : « Susciter, maintenir et accroître la motivation, afin de créer dans la société une dynamique d'apprentissage, d'usage et de transmission de la langue ».

PR
OP
OS

Pour chacun des enjeux, le projet définit ensuite un certain nombre **d'orientations stratégiques** (2 à 4 par enjeu avec leurs déclinaisons respectives) qui fixent les directions à suivre, les caps à tenir.

Pour chacune des orientations fixées, **les axes de travail** listent une série d'actions, d'initiatives, de projets à mettre en œuvre pour progresser dans le sens souhaité. Ces derniers s'inscriront pour partie dans les activités que l'OPLB mènera en direct, ou bien seront conduits par des opérateurs publics, associatifs ou privés dans le cadre de partenariats avec l'OPLB.

Enfin, en conclusion, le projet de politique linguistique acte la nécessité de procéder à une évaluation précise de sa mise en œuvre, de mesurer par le suivi **d'une série d'indicateurs**, son impact sur la situation de la langue basque, et de veiller en permanence à son adéquation avec les objectifs visés.

AIT
ZIN

Motibazioa : « Motibazioa piztu, indartu eta egonkortu, euskararen ikastearen, baliatzearen eta jarraitzearen aldeko dinamika iraunkor bat jendartean sortzeko gisan ».

SO
LAS
A

Erronka bakoitzarentzat, egitasmoak **norabide estrategiko** batzuk finkatzen ditu (bizpalau norabide erronka arau, bakoitza bere deklinabideekin), jarraiki beharreko norantzak eta erdietsi beharreko helburuak finkatzen dituztenak.

Finkatu norabideetarik bakoitzarentzat, **lan-ardatzek**, bilatzen den den jomugara aitzinatzeko obratu behar diren hainbat ekintza, ekimen eta egitasmo zerrendatzen dituzte. Lan-ardatz horiek EEP-k zuzenki eramanen dituen ihardueretan sartuko dira, edo hainbat eragile publikok, pribatuk edo elkarte-eragilek eramanak izanen dira, EEP-rekilako partaidetzen baitan.

Azkenik, ondorio gisa, hizkuntza politika proiektuak beharrezkotzat jotzen du egitasmoaren obratzearen ebaluazio zehatz baten egitea, **adierazle** batzuen jarraipenaren bidez euskararen egoeran daukan eragina neurtuz, eta finkatu helburuekin daukan egokitasuna etengabe zainduz.

Partie 1. Transmettre la langue

Lehen zatia. Euskara transmititu

Pour stopper le déclin de la langue et entrer dans une dynamique de développement, le projet de politique linguistique a identifié un objectif central, des locuteurs complets, et a défini un cœur de cible, les jeunes générations. L'ambition est donc d'accroître le nombre de personnes qui savent le basque, qui sont motivés pour le parler, et qui le parlent effectivement dans leur vie quotidienne, en visant plus particulièrement les enfants et les jeunes, ceux par qui la revitalisation linguistique est en train de s'amorcer.

La condition première de l'utilisation d'une langue est sa connaissance. Longtemps, la famille a constitué le vecteur principal de transmission de la langue basque, quand les fonctions linguistiques des deux langues en présence étaient assez distinctes et que le basque occupait largement le champ familial. Avec la modernisation et l'urbanisation de la société au cours du XX^e siècle, le basque a vu progressivement sa place régresser dans de nombreux secteurs où sa pratique était d'usage, et en particulier au sein de la famille. Cette rupture de la transmission familiale constitue l'une des principales explications du déclin de la langue basque.

Les sociologues s'accordent à dire que la revitalisation d'une langue en danger nécessite en premier lieu d'assurer à nouveau sa transmission de génération en génération. Dans les travaux de référence en sociolinguistique (J. Fishman, "Reversing Language Shift", J.M. Sanchez Carrion "Txepetx", *Un futuro para nuestro pasado*, 1987), la transmission familiale constitue une étape fondamentale et décisive dans les processus de revitalisation linguistique que modélisent leurs auteurs.

En effet, au sein de la cellule familiale, l'enfant reçoit la (ou les) langue(s) maternelle(s), celle qui va forger sa personnalité, celle par l'intermédiaire de laquelle il va se construire. C'est aussi le lieu le plus efficace de la transmission. Exposé à la langue qu'il entend dans la famille, l'enfant se met progressivement à l'utiliser, à en acquérir la connaissance et à s'y attacher. L'acquisition de la langue se fait de manière naturelle, sans être conditionnée par une motivation préalable ni par l'effort pour apprendre. Avec l'utilisation de la langue et l'acquisition naturelle des compétences linguistiques qui s'ensuit, l'attachement à la langue et la motivation qui y est associée naissent aussi de manière naturelle. Il en résulte que ce

Hizkuntzaren beharpenaren geldiarazteko eta garapen dinamika batean sartzeko, hizkuntza politika proiektuak helburu nagusi bat finkatu du, hiztun osoak, lehenetsun gisa belaunaldi gazteak hartuz. Beraz, helburua euskara dakien, mintzatzeko gogo duen eta eguneroko bizitzan mintzatzeko duen jende kopuruaren emendaraztea da, batez ere haur eta gazteei zuzenduz, hizkuntzaren biziberritzea haien bidez abiatzen ari baita.

Hizkuntza baten erabilerako lehen baldintza da honen ezagutza. Luzaz, familia izan da euskararen transmisiorako tresna nagusia, dauden bi hizkuntzen funtzioak aski bereziak zirelarik, euskara familiako eremuan nagusi izanez. XX. mendean zehar gertatu modernizazio eta hiritartzearekin batera, euskararen tokia pixkanaka murriztu da erabilia zen eremu anitzetan, eta batez ere familian. Familiaren baitan gertatzen zen transmisio horren haustura da euskararen gainbeheraren arrazoi nagusietako bat.

Soziologoek bat egiten dute errateko arriskuan den hizkuntza baten berpizteko, behar dela lehenik honen transmisioa segurtatu belaunaldi batetik bestera. Soziolinguistikako erreferentziak lanetan (J. Fishman, "Reversing Language Shift", J.M. Sanchez Carrion "Txepetx", *Un futuro para nuestro pasado*, 1987), autoreek hizkuntza berreskurapen urraspideez diseinatu dituzten ereduetan, familia bidezko transmisioa da funtsezko urrats erabakigarria.

Alabaina, familiaren baitan, haurrak ama-hizkuntza(k) eskuratzen d(it)u, bere nortasuna egituratuko duena, bere buruaren eraikitze baliatuko duena. Transmisioaren gune eraginkorra da familia. Familiaren baitan duen hizkuntzan murgildurik, haurrak pixkanaka hizkuntza erabiltzen du, haren ezagutzaz jabetzen da eta hizkuntzari atxikitzen hasten zaio. Hizkuntzaz jabetzea berez egiten da, ikasteko nahikundeak eta eginahalek baldintzatu gabe. Hizkuntzaren erabilpenarekin eta hizkuntza gaitasunez jabetze naturalarekin batera, hizkuntzarekilako atxikimendua eta horri lotua zaion motibazioa ere berez sortzen dira. Ondorioz, ama-hizkuntza gisa berez erabiltzen den hizkuntzaren eskuratze hori, berantago bigarren hizkuntza gisa ikastea baino anitzez errazagoa da, ikaskuntza hau ikasteko indarrek eta motibazioek baldintzatzen baitute. Eraginkorragoa da ere, hizkuntza gaitasunari, erabilpenari eta iraunkortasunari doakienez. Hizkuntza, familian ama-hizkuntza

mode d'acquisition naturelle de la langue en tant que langue maternelle est bien plus aisé que l'apprentissage ultérieur en tant que langue secondaire, conditionné, lui, par la motivation à apprendre et l'effort de l'apprentissage. Il est aussi plus efficace en terme de compétence linguistique, d'usage et de durabilité. Les locuteurs qui reçoivent la langue comme langue maternelle dans la famille auront plus de chance d'atteindre un meilleur niveau dans la maîtrise de la langue et de pouvoir parler à la fois une langue correcte, naturelle et adaptée au contexte d'utilisation. Une meilleure aisance facilitera une plus grande pratique.

Les bascophones naturels réunissent ainsi toutes les conditions pour garder cet héritage tout au long de leur vie et pour le transmettre par la suite à leurs propres enfants. Dans un contexte où la transmission familiale est en rupture, le projet de politique linguistique, qui se fixe comme objectif central d'accroître le nombre de locuteurs complets, qui vise un développement durable de la langue, se doit d'intégrer cet enjeu, de valoriser les initiatives visant à **mobiliser la cellule familiale sur sa fonction stratégique de transmission de la langue.**

Relais de la famille, les structures et les professionnels chargés de l'accueil de la petite enfance occupent une place de plus en plus importante au sein de notre société. L'enfant sera dès lors, pendant la durée de garde, exposé à une ou plusieurs langues, celle(s) pratiquées par la ou les personnes qui en ont la charge. Cette exposition aura un impact variable, jamais négligeable, souvent important. Dans un contexte où la majorité des familles vivant au Pays Basque ne sont pas bascophones, où la transmission familiale de la langue se fait difficilement, y compris au sein des familles bascophones, où les parents désireux de transmettre la langue à leurs enfants ne sont pas toujours en capacité de le faire faute d'un niveau de maîtrise suffisant de la langue, où enfin le temps passé par l'enfant en dehors de la cellule familiale s'est accru, les professionnels chargés de l'accueil de la petite enfance constituent un relais particulièrement stratégique pour la transmission de la langue. L'enjeu consiste dès lors à **construire avec les structures et les professionnels de la petite enfance, une offre de services en langue basque, venant soutenir la transmission de la langue.** L'objectif est d'offrir la possibilité, aux familles qui le souhaitent, de faire appel à des professionnels de la

gisa eskuratzen duten hiztunek, hizkuntza maila hobea lortzeko mentura gehiago dute, eta aldi berean, molde naturalagoan, zuzenagoan baliatzeko, erabilpen egoera ezberdinei hobeki egokituz. Erraztasun handiago batek erabilpen zabalagoa ekarriko du.

Hola, berezko euskaldunek, ondare hori bizi osorako atxikitze eta ondotik beren haurrei transmititzeko baldintza guziak betetzen dituzte. Familia bidezko transmisioa hausturan den honetan, hiztun osoen kopuruaren emendatzea helburu nagusizat finkatzeazgain, hizkuntzaren garapen iraunkorra bilatzen duen hizkuntza politika proiektuak, erronka horretaz jabetu behar du, eta **familia hizkuntzaren transmisio tresna estrategiko gisa mobilizatzen duten ekimenak baloratu.**

Familiarekin zubia eginez, lehen haurtzaroaren harreraz arduratzen diren egiturek eta profesionalak toki gero eta zabalagoa hartzen dute gure gizarte honetan. Orduan, zaindua den denboran, haurra hizkuntza batean edo gehiagotan murgildua izanen da, zaintzeaz arduratzen d(ir)en pertsonak/(ek) mintzatzen du(t)ena hain zuzen ere. Murgiltze horrek nola edo halako eragina ukanen du, nehoiz ez gutiestekoa, usu garrantzitsua. Euskal Herrian bizi diren familien gehiengo ez da euskalduna, familiaren bidezko transmisioa nekez egiten da familia euskaldunetan ere, eta hizkuntza beren haurrei irakatsi nahi dieten gurasoek batzutan ezin dute hizkuntza gaitasun eskasagatik. Aldi berean, haurrek familatik kanpo pasatzen duten denbora emendatu da. Hori dela-eta, lehen haurtzaroaren harreraz arduratzen diren profesionalak zubi guztiz estrategikoa bilakatzen dira hizkuntzaren transmisiorako. Ondorioz, **hizkuntzaren transmisioa sustengatuko duen euskarazko zerbitzu eskaintza bat lehen haurtzaroko egiturekin eta profesionalekin eraikitzea erronka bilakatzen da.** Helburua da, beren haurrekin euskaraz ariko diren profesionalen hautatzeko aukera eskaintzea nahi duten familiei. Hizkuntza tipologiaren arabera, familian mintzatua den hizkuntzaren arabera, haren ardura

petite enfance utilisant la langue basque avec leurs enfants. En fonction de la typologie linguistique des familles, en fonction de la langue parlée au sein de la cellule familiale, en fonction enfin de la durée passée par l'enfant avec les personnes auxquelles il est confié, ces professionnels utilisant la langue basque constituent selon les cas, soit un soutien à la transmission familiale, soit le premier vecteur de transmission à un stade de vie de l'enfant où l'acquisition linguistique se fait de manière naturelle, à l'âge du langage.

Au Pays Basque, le développement de l'enseignement en langue basque a eu pour premier effet de stopper le déclin de la langue dans les tranches d'âge les plus jeunes. L'école a ainsi pris, en partie, le relais de la famille dans le processus de transmission, le développement de l'enseignement du basque et en basque à l'école venant compenser partiellement le déclin de la transmission familiale. Dans un contexte où les familles non-bascophones sont de plus en plus nombreuses, où le niveau de compétence des familles désireuses de transmettre la langue leur permet de moins en moins souvent d'assurer seules une transmission de qualité, l'enseignement en langue basque est devenu un instrument indispensable de la continuité linguistique. Dans le contexte diglossique dans lequel se situe aujourd'hui la langue basque, le milieu scolaire vient rétablir en partie l'équilibre dans la mesure où la langue basque y constitue une langue d'enseignement. Dans le cas d'une famille non-bascophone, il joue un rôle compensateur. Dans le cas d'une famille bascophone, il renforce l'influence de la famille et complète le processus d'acquisition de la langue. L'enseignement dans la langue est en effet indispensable même dans le cas d'un enfant recevant le basque comme langue maternelle. Un apprentissage exclusivement naturel ne permet pas en effet de stimuler suffisamment la motivation du locuteur. Pour atteindre un niveau suffisant de motivation, la langue maternelle doit être, à un moment de son acquisition, langue d'éducation culturelle. À défaut, le locuteur naturel a tendance à attribuer son manque de culture dans la langue à un défaut de la langue elle-même. D'où un risque de dévalorisation de la langue maternelle et une perte de motivation à l'utiliser. Pour que le processus d'acquisition soit complet, les locuteurs natifs doivent pouvoir compléter l'acquisition première par un apprentissage secondaire, devenant ainsi des locuteurs cultivés dans la langue maternelle.

duten pertsonekin haurrak iragaiten duen denboraren arabera, euskara erabiltzen duten profesionalak, hizkuntza transmititze prozesuan funtzio ezberdina beteko dute : kasuaren arabera, familia baitako transmisioaren sustengu izanen dira, edo berdin transmisiorako lehen eragilea, haurrak hizkuntzaz jabetzea oraino molde naturalean egiten duen garai batean, hots "hizkuntzaren garaian".

Euskal Herrian, euskarazko irakaskuntzaren garapenaren lehen ondorioa izan da euskararen gainbeheraren geldiaraztea belaunaldi gazteenen baitan. Horrela, eskolak hartu du, neurri batean, familiaren segida transmisio prozesuan, eskolan ematen den euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garapenak familia mailako transmisioaren gainbehera parte batean motelduz. Familia euskaldunak gero eta gutiago dauden egoera batetan, euskara erakutsi nahi duten familiek gehienetan kalitatezko transmisio baten egiteko gaitasunik aski ez dutenean, euskarazko irakaskuntza hizkuntzaren iraupenerako ezinbesteko tresna bilakatu da. Gaur egun euskara dagoen egoera diglosikoan, eskolako giroak oreka berriz jartzen du parte batean, euskara irakaskuntzarako hizkuntza bilakatzen den neurrian. Euskalduna ez den familia baten kasuan, eginkizun konpentsatzailea betetzen du. Familia euskaldun baten kasuan, familiaren eragina azkartzen du eta hizkuntzaren eskuratze urraspidea osatzen. Euskarazko irakaskuntza beharrezkoa da euskara ama hizkuntza daukan haurraren kasuan ere. Naturala baizik ez den ikaskuntza ez da nahikoa hiztunaren motibazioaren sustatzeko. Motibazio maila nahiko batetara heltzeko, ama hizkuntzak, eskuratze urraspidearen memento batean, kultura hezkuntzaren hizkuntza izan behar du. Hala ez bada, berezko hiztunak, hizkuntza horretan duen kultura eskasa, hizkuntza beraren akats baten gain jartzen du usu. Hortik, ama hizkuntzaren gutiesteko arriskua sortzen da, eta hizkuntzaren erabiltzeko motibazioaren galtzea. Eskurapen prozesua osoa izateko, sortzetik mintzatzen dutenek lehen eskurapenaren osatzeko ahala ukan behar lukete, bigarren mailako ikaskuntzaren bidez, ama hizkuntzan hiztun jakintsuak bilakatzeko gisan. Orduan, bi prozesuak molde osagarrian elkartzen dira, ikaskuntzaren osotasuna eta erabiltzeko motibazioaren hein nahikoa bermatzen dituen zirkuitu bat osatuz.

Dès lors, les deux processus se complètent, formant un circuit garantissant la complétude de l'apprentissage et le niveau de motivation suffisant à l'usage.

La vitalité des langues tient à leur fonctionnalité, et plus une langue remplit de fonctions, plus elle a de chance de durer et de se développer. En devenant non seulement langue enseignée, mais aussi langue d'enseignement, le basque acquiert une fonction majeure, la fonction culturelle, remplie par la langue littéraire utilisée pour l'éducation. En même temps, elle commence à prendre sa place dans la société, à acquérir statut social et prestige. C'est pourquoi le projet de politique linguistique se fixe comme enjeu de **structurer et développer l'apprentissage de la langue grâce à l'école, outil indispensable à la transmission du basque, tout à la fois langue enseignée et langue d'enseignement.**

Ainsi, cellule familiale, professionnels chargés de l'accueil de la petite enfance et école constituent trois leviers complémentaires sur lesquels le projet de politique linguistique se propose d'agir simultanément, de façon à redynamiser et développer la transmission intergénérationnelle de la langue basque.

Hizkuntzen bizkortasuna beren funtzionaltasunean dago, eta hizkuntza batek funtzio gehiago bete eta irauteko eta garatzeko aukera gehiago du. Hizkuntza irakasia izateaz gain, irakaskuntzarako hizkuntza ere bilakatuz, euskarak funtzio nagusi bat lortzen du, kultur funtzioa, irakaskuntzan erabili hizkuntza literarioak betetzen duena. Denbora berean, gizartean bere tokia hartzen ari da, gizarte-estatutua eta prestigioa erdiesten hasten da. Horregatik, hizkuntza politika proiektuaren erronka da **hizkuntzaren ikaskuntza eskolari esker egituratzea eta garatzea, eskola delarik denbora berean hizkuntza irakatsi gisa eta irakaskuntzarako hizkuntza gisa euskararen transmisioa ahalbidetzen duen ezinbesteko tresna.**

Gisa horretan, familia, lehen haurtzaroko harreraz arduratzen diren profesionalak eta eskola, hiru tresna osagarri dira, hizkuntza politika proiektuak aldi berean landu nahi dituenak, euskararen belaunaldien arteko transmisioa bizkortzeko eta garatzeko xedez.

ENJEU MAJEUR



Mobiliser la cellule familiale sur sa fonction stratégique de transmission de la langue

ORIENTATIONS STRATEGIQUES



1/ Aider les familles à transmettre la langue :

- 1.1. Permettre aux parents et aux futurs parents d'améliorer leur niveau de langue.
- 1.2. Offrir des outils et des méthodes facilitant la transmission au sein de la famille.
- 1.3. Créer des lieux d'échanges à l'attention des parents engagés dans un processus de transmission familiale.

2/ Mettre en lien la transmission familiale avec les autres modes de transmission au sein de la société, comme autant de maillons complémentaires de la continuité linguistique :

- 2.1. Créer des passerelles entre la famille et les autres maillons clés de la transmission naturelle que constituent la petite enfance et l'enseignement, dans l'objectif de renforcer l'ensemble de la chaîne.
- 2.2. Créer des passerelles entre la famille et les domaines de la vie sociale intéressant particulièrement la famille, l'enfance et la jeunesse.

ERRONKA NAGUSIA



Familia, euskararen transmititzeko tresna estrategiko gisa berreskuratu

ORIENTABIDE ESTRATEGIKOAK



1/ Familiak euskararen transmititzen lagundu :

- 1.1. Aitamak eta gurasogaiak, beren euskarazko gaitasunen hobetzen lagundu.
- 1.2. Transmititzearen errazteko eta laguntzeko tresnak, metodoak eta baliabideak eskaini.
- 1.3. Familia bidezko transmisio prozesuan engaiatuak diren aitamen arteko elkarguneak sortu.

2/ Familia bidezko transmisioa, jendarteko beste transmisio bideekin uztartu, denen artean transmisiorako katea osatzeko xedez :

- 2.1. Familia, berezko beste transmisio-bide diren lehen haurtzarora eta irakaskuntzarekin uztartu, kate osoa azkartzeko asmoz.
- 2.2. Familia, ingurumen hurbileko gizarte-bizitza eremuekin uztartu, nagusiki haur eta gazteetarik hurbil dauden eremuekin.

1/ Aider les familles à transmettre la langue.

1.1. Permettre aux parents et aux futurs parents d'améliorer leur niveau de langue :

Structurer une offre de formation à l'attention des parents et futurs parents :

Susciter le montage de groupes de formation spécifique tenant compte de la typologie des familles, des niveaux de langue... ; créer les méthodes et outils adaptés à ce public ; favoriser des contenus de formation facilitant la pratique de la langue avec les enfants et entre les parents...

Faciliter la participation des familles à des stages de langue.

1.2. Offrir des outils et des méthodes facilitant la transmission au sein de la famille :

Définir et créer les outils faisant aujourd'hui défaut :

A partir d'une analyse qualitative des produits déjà existants, repérer et mettre en œuvre des supports à créer ou à adapter : histoires, comptines, chants, illustrations, livres conseil sur l'éducation des enfants...

Faciliter l'accès à cette offre par un public élargi :

Promotion des outils facilitant la transmission familiale au sein de la famille : site internet, newsletter, catalogues, réunions publiques, émissions radio/TV...

Actions de sensibilisation et de formation pour une mise en valeur spécifique des supports d'aide à la transmission.

1/ Familiak euskararen transmititzen lagundu.

1.1. Aitamak eta gurasogaiak, beren euskarazko gaitasunen hobetzen lagundu :

Aitamei eta gurasogaiei zuzendu ikastaro bereziak proposatu, helduen euskalduntzeko egiturekin partaidetzan :

Formakuntza taldeak sortu, familien tipologiari egokitzuz, gurasogaiak, aitamak, haurren adina, bakoitzaren hizkuntza gaitasunak eta bi bizilagunenak kontuan hartuz...

Taldeentzat egokia den formakuntza eskaintza berezia plantan jarri, helduen euskalduntze egiturekin partaidetzan, formakuntzaren edukiak, metodoak eta ikasmaterialak publikoari eta xedeari egokitzuz.

Erabilpena formakuntzaren muinean jarri, egun guzietako giroa eta egoerak bersortuz, haurrekin saio bereziak antolatuz... egun guzietako erabilera errazteko eta bultzatzeko gisan, 3 xedetan garrantzia berezia jarriz : euskara haurrekilako hizkuntza izatea, euskara bizilagunen arteko hizkuntza izatea, euskara familia osoaren hizkuntza izatea, anai-arreben artean ere.

Familiak lagundu ikastaldietan parte hartzen.

1.2. Transmisioaren errazteko eta laguntzeko tresnak, metodoak eta baliabideak eskaini :

Beharrezkoak diren tresnak, metodoak eta baliabideak definitu eta sortu :

Sail hortan jadanik badauden baliabideen eta esperientzien azterketa kalitatibotik abiatuz, eduki ezberdinak kontutan hartuz (ipuin, ixtorio, komiki, kantu, euskaraz haurraren hezteko aholku liburu...) eta euskarri ezberdinak (liburu(tto), cd, cdrom, tailer bereziak...), lurraldearen eta publikoaren beharrei erantzuteko beharrezkoak diren moldaketak eta ekoizpen osagarriak definitu eta gauzatu.

Eskaintza hau publiko zabalaren eskuetan ezarri :

Transmisioa laguntzeko tresnen eskaintza aitamei ezagutzera eman : webgune, newsletter, katalogo, cd...

Sentsibilisazio eta formakuntza ekintza bereziak antolatu, eskaintza hurbiltzeko begiztatu publikoarengana : bilkura publikoak, irrati emankizunak, telebistarako erreportaiak, kazeta ostoa bereziak...

1.3. Créer des lieux d'échanges à l'attention des parents engagés dans un processus de transmission familiale :
Echange d'expériences, aides mutuelles, relations avec les professionnels de la petite enfance (personnels des crèches, assistantes maternelles, enseignants de classe maternelle...), réflexion sur les outils...

2/ Mettre en lien la transmission familiale avec les autres modes de transmission au sein de la société, comme autant de maillons complémentaires de la continuité linguistique.

2.1. Créer des passerelles entre la famille et les autres maillons clés de la transmission naturelle que constituent la petite enfance et l'enseignement, dans l'objectif de renforcer l'ensemble de la chaîne :

Susciter la mise en place d'initiatives et d'activités communes pérennes entre les familles, les structures et professionnels d'accueil de la petite enfance et les établissements scolaires :

Définir, par le biais d'ateliers de réflexion, les initiatives et activités à mettre en oeuvre, susceptibles de stimuler et faciliter au mieux la transmission familiale tout en enrichissant le travail des professionnels de la petite enfance et de la communauté pédagogique :

Activités menées avec les parents au sein des structures de la petite enfance, prolongement dans la famille du travail mené dans les crèches et par les assistantes maternelles...

Participation active des parents et/ou frères et soeurs au niveau scolaire, ateliers d'aide au suivi des devoirs en basque...

Expérimenter, adapter et développer les activités et initiatives ainsi retenues.

1.3. Familia bidezko transmisio prozesuan engaiatuak diren aitamen arteko elkarguneak sortu :
Esperientzien eta konpetentzien partekatzeak eta trukaketak; trebatzen elkar laguntzea, besteak beste harremanak antolatuz familian euskaraz ari diren beste aitama batzuekin, lehen haurtzaroko profesionalekin, ama-eskoletako irakasleekin...; tresnei eta metodoei buruzko gogoetak ; euskarazko jarduera batzu elkarren artean gogoetatzea eta muntatzea...

2/ Familia bidezko transmisioa, jendarteko beste transmisio bideekin uztartu, denen artean transmisiorako katea osatzeko xedez.

2.1. Familia, berezko beste transmisio-bide diren lehen haurtzaroa eta irakaskuntzarekin uztartu, kate osoa azkartzeko asmoz :

Familien, haurtzaindegien, ama-laguntzaileen eta eskolen artean, gogoeta lan talde baten bitartez, familia transmisioa bultza eta laguntzeko ekimen eta jarduerak definitu, helburutzat hartuz, aitamen transmisio prozesua erraztea eta laguntzea, eta aldi berean lehen haurtzaroko profesionalen lanaren aberastea, sortu zubiei esker : aitamen parte hartzean oinarritu jarduerak haurtzaindegietan muntatzea, familian haurtzaindegiek eta ama-laguntzaileek eramaten duten lanaren jarraipena antolatzea, aitamak haurren etxeko lanen jarraitzen laguntzea (metodo, gida liburu, tailer...), aitamen parte hartzea eskolako jardueretan batzuetan, familien parte hartzean oinarritu jarduera batzuen muntatzea...

Finkatu ekimen eta jarduerak esperimendu, egokitu eta garatu.

Aider et accompagner la mise en oeuvre de projets spécifiques pouvant être portés par des associations de familles, de parents d'élèves, des établissements scolaires, des structures d'accueil et professionnels de la petite enfance...

2.2. Créer des passerelles entre la famille et les domaines de la vie sociale intéressant particulièrement la famille, l'enfance et la jeunesse :

Stimuler les relations et les ponts entre les familles et les structures de loisirs proposant une offre en langue basque.

Renforcer la place des medias d'expression basque dans la famille et auprès des jeunes publics :

Mettre en oeuvre des programmes d'animation pédagogique en partenariat avec les medias concernés, les établissements scolaires et les conseillers pédagogiques pour sensibiliser le jeune public aux medias d'expression basque : expérimentation à mener via des ateliers associant les professionnels des medias et les établissements (rédaction d'articles, production d'émissions de radio ou télévision...).

Susciter la participation des bascophones naturels comme appui et relais de la transmission familiale : grands parents, voisins, maisons de retraite...

Aider et accompagner la mise en oeuvre de projets portés par le tissu associatif susceptibles d'appuyer le rôle de la famille.

Familia zein buraso elkarteek, ikastetxeek, lehen haurtzaroko egiturek... munta ditzaketen proiektu bereziak sustengatu eta lagundu.

2.2. Familia, ingurumen hurbileko gizarte-bizitza eremuekin uztartu, nagusiki haur eta gazteetarik hurbil dauden eremuekin :

Familien eta euskarazko aisialdi zerbitzua eskaintzen duten egituren artean, harreman eta zubiak bultzatu eta lagundu.

Familietan, eta partikulazki belaunaldi gazteen baitan, euskal hedabideen kontsumoa emendatu :

Programa pedagogikoak muntatu, hedabideekin, ikastetxeekin eta aholkulari pedagogikoekin partaidetzan, haur eta gazteak euskal hedabideetara hurbilarazteko eta erakartzeko : hedabideetako profesionalen eta ikastetxeen artean xutik ezarri tailer batzu eta esperimintazioak eraman (artikulu idaztea, irrati zein telebista emankizun batzuen sortzea...).

Transmisio prozesuan aitamen lekukoa har lezaketen euskaldun zaharren parte hartzea antolatu :

Transmisio prozesuan aitatxi-amatxien papera berreskuratu eta azkartu.

Familiaz kanpo transmisioan aitamen lekukoa har dezaketen pertsonen eta familiaren artean zubiak eraiki :

Familien eta zahar-etxeen artean zubiak sortu.

Familien eta auzo, herritarren... artean zubiak sortu.

Familien papera sustenga dezaketen elkarteek eraman proiektuak bultzatu eta lagundu.

ENJEU MAJEUR



Construire avec les professionnels et les structures de la petite enfance une offre de services soutenant la transmission de la langue

ORIENTATIONS STRATEGIQUES



- 1/ Faire en sorte qu'en tout point du territoire, les familles puissent accéder à des services "Petite enfance" en langue basque :
 - 1.1. Structurer un réseau de crèches proposant une offre en langue basque.
 - 1.2. Structurer un réseau d'assistantes maternelles proposant un accueil en langue basque.
- 2/ Permettre aux professionnels de la petite enfance d'accéder aux outils et aux compétences nécessaires :
 - 2.1. Aider la formation des professionnels.
 - 2.2. Créer les matériels nécessaires pour le fonctionnement d'une offre de service en langue basque et rendre accessible ce matériel par les professionnels.
 - 2.3. Créer un lieu d'échange et de partage pour les professionnels de la petite enfance intervenant en langue basque.
 - 2.4. Suivre et évaluer la diversité des expériences menées dans les choix linguistiques.

2/ PETITE ENFANCE

ERRONKA NAGUSIA



Lehen haurtzaroko egiturekin eta profesionalekin, hizkuntzaren transmisioaren zirkuitu izanen den euskarazko zerbitzu eskaintza bat plantan jarri

ORIENTABIDE ESTRATEGIKOAK



- 1/ Familiei eman, lurralde osoan, lehen haurtzaroko euskarazko zerbitzu baten hautatzeko aukera :
 - 1.1. Euskarazko eskaintza proposatzen duten haurtzaindegien sare bati buruz joan.
 - 1.2. Euskarazko zerbitzu bat eskaintzen duten ama-laguntzaileen sare bati buruz joan.
- 2/ Profesionalei, behar bezala lan egiteko beharrezkoak dituzten tresnak eta kompetentziak eskaini :
 - 2.1. Profesionalen formakuntza lagundu.
 - 2.2. Profesionalek euskaraz lan egiteko beharrezkoak dituzten materialak eta tresnak sortu eta zabaldu.
 - 2.3. Profesionalen arteko elkargune bati buruz joan.
 - 2.4. Lehen haurtzaroko egiturek hautatu hizkuntzen erabilpen ezberdinak begiratu eta ebaluatu.

2/ LEHEN HAURTZAROA

1/ Faire en sorte qu'en tout point du territoire, les familles puissent accéder à des services "Petite enfance" en langue basque.

1.1. Structurer un réseau de crèches proposant une offre en langue basque :

Définir une carte prévisionnelle visant une offre accessible sur l'ensemble des secteurs géographiques du Pays Basque. Mettre en oeuvre cette offre prévisionnelle en structurant au sein des crèches existantes, la création d'un service d'accueil en langue basque ou en proposant la création de nouvelles structures d'accueil.

1.2. Structurer un réseau d'assistantes maternelles proposant un accueil en langue basque :

A partir de la situation existante (pratiques de la langue, compétences linguistiques, souhait d'utilisation de la langue, souhait de l'apprendre...) définir et mettre en oeuvre en partenariat avec les structures professionnelles, un dispositif visant à organiser et consolider une offre de services en langue basque : constitution de fichiers d'assistantes maternelles pratiquant la langue, actions de promotion auprès des familles...

2/ Permettre aux professionnels de la petite enfance d'accéder aux outils et aux compétences nécessaires.

2.1. Aider la formation des professionnels :

Répondre aux besoins des professionnels pratiquant déjà en langue basque :

Recueil des besoins, mise en place d'actions de formation, en relation avec les partenaires concernés.

Permettre aux professionnels volontaires de la petite enfance n'exerçant pas en langue basque, d'apprendre ou de perfectionner la langue basque.

1/ Familiei eman, lurralde osoan, lehen haurtzaroko euskarazko zerbitzu baten hautatzeko aukera.

1.1. Euskarazko eskaintza proposatzen duten haurtzaindegien sare bati buruz joan :

Haurtzaindegien karta definitu, lurralde osoan euskarazko eskaintza eskuragarria jar lezakeena, gaur egungo egoeratik abiatuz.

Euskarazko haurtzaindegien eskaintzaren garatzeko eta egituratzeko programazioa definitu eta obratu :

Dauden haurtzaindegietan, euskarazko eskaintza garatu.

Euskarazko eskaintza proposatuko duten haurtzaindegi berri batzu sortuz.

1.2. Euskarazko zerbitzu bat eskaintzen duten ama-laguntzaileen sare bati buruz joan :

Gaurko egoeraren ezagutzatik abiatuz (ama-laguntzaileen lan hizkuntza, hizkuntza gaitasunak, euskaraz aritzeko nahikundeia, euskararen ikasteko gogoia...), ama-laguntzaileekin eta egitura profesionalekin partaidetzan, euskarazko zerbitzu eskaintzaren garatzeko eta egituratzeko plangintza definitu eta obratu : ama-laguntzaileen hizkuntza formakuntza, euskaraz ari diren ama-laguntzaileen fitxategi gaurkotua, familiei zuzendu sentsibilisazio-promozio ekintzak...

2/ Profesionalei, behar bezala lan egiteko beharrezkoak dituzten tresnak eta konpetentziak eskaini.

2.1. Profesionalen formakuntza lagundu :

Gaurko egunean euskaraz ari diren langileen beharrei erantzuten lagundu :

Formakuntza beharren biltzetik abiatuz, beharrei erantzuteko formakuntza berezituak antolatu, partaide egokiekin eskuz-esku.

Dauden langileen artean, euskara ikasi edo hobetu nahi dutenak euskalduntzen lagundu :

Formakuntza beharren itzulia egin.

Egitura eta langile bakoitzarekin partaidetzan, euskalduntze prozesua formakuntza jarraikiko antolaketetan sartzearen egingarritasuna aztertu.

Recueil des besoins, recours aux dispositifs de formation continue, mise en place de groupes de formation entre professionnels de la petite enfance... en relation avec les partenaires concernés.

Examiner avec les centres de formation de préparation aux métiers de la petite enfance, la mise en place d'une formation linguistique pour les personnes volontaires.

2.2. Créer le matériel nécessaire pour le fonctionnement d'une offre de service en langue basque et rendre ce matériel accessible aux professionnels :

A partir de l'état des lieux (recueil des besoins, création des outils...) en lien avec les professionnels concernés.

2.3. Créer un lieu d'échange et de partage pour les professionnels de la petite enfance intervenant en langue basque :

Partage d'expériences et de compétences, aides mutuelles, réflexions sur les outils, relations avec les parents, projets d'activités à proposer aux parents pour une plus grande pratique de la langue...

2.4. Suivre et évaluer la diversité des expériences menées dans les choix linguistiques :

Établir des relations régulières avec les structures proposant des modes de fonctionnement différents dans l'organisation du service d'accueil en langue basque : pratique de la langue pour tous les enfants de la structure d'accueil, pratique de la langue pour les enfants dont les parents le demandent, pratique de la langue en fonction des intervenants...

Suivi et évaluation de ces différents modes de fonctionnement en partenariat avec les structures concernées.

Helduen euskalduntze egiturekin partaidetzan, ikasle talde bereziak osatu, beharrak eta hizkuntza mailak kontutan hartuz.

Formakuntza berezituak antolatu, metodoak eta ikasmaterialak taldeen beharrei egokitzuz.

Etorkizuneko profesionalen euskarazko formakuntza antolatu :

Lehen haurtzaroko jatorrizko formakuntzaz arduratzen diren ikas zentroekin, formakuntza nagusiari euskarazko formakuntzaren uztartzeaz gogoetatu eta egitasmoa antolatu.

2.2. Profesionalek euskaraz lan egiteko beharrezkoak dituzten materialak eta tresnak sortu eta zabaldu :

Profesionalek adierazi beharretatik abiatuz, eta jadanik sortuak diren materialen eta tresnen eskaintza kontutan hartuz, eskaintza horren egokitzeko eta eskasen betetzeko plangintza definitu, hitzartu eta obratu.

Materialak eta tresnak profesionalen eskuetan ezarri.

2.3. Profesionalen arteko elkargune bati buruz joan :

Profesionalekin partaidetzan lan bat eraman, beren arteko elkargune baten nondik norakoen gogoetatzeko eta lehentasunen finkatzeko : elkar trukaketak, esperientzia eta konpetentzien partekatzea, euskaraz ari diren profesional batzu besteen trebatzen laguntzea, lan tresnak elkarren artean gogoetatzeko, aitamei eskaini euskarazko jarduera batzuk partaidetzan gogoetatzeko eta muntatzea...

2.4. Lehen haurtzaroko egiturek hautatu hizkuntzen erabilpen ezberdinak begiratu eta ebaluatu :

Praktika ezberdinak dauzkaten egiturekin harreman iraunkorrak eraiki (haur guziekin euskaraz, aitamen hautuaren arabera, langileen arabera...).

Egin-molde ezberdinak begiratu eta ebaluatu, arabera egiturekin partaidetzan.

ENJEU MAJEUR

Structurer et développer l'apprentissage de la langue grâce à l'école, outil indispensable à la transmission du basque, tout à la fois langue enseignée et langue d'enseignement

ORIENTATIONS STRATEGIQUES

- 1/ Permettre aux familles qui le souhaitent de bénéficier sur l'ensemble du territoire d'une offre d'enseignement structurée et cohérente :
 - 1.1. Développer l'offre d'enseignement.
 - 1.2. Prévoir et répondre aux besoins en formation des maîtres.
 - 1.3. Structurer les modes d'organisation de l'enseignement du basque et en basque.
- 2/ Aider les enseignants à accéder aux outils et aux compétences nécessaires à l'exercice de leur mission :
 - 2.1. Répondre aux besoins en formation linguistique des enseignants.
 - 2.2. Accompagner les opérateurs spécialisés dans la production de matériel pédagogique.
 - 2.3. Utiliser pour l'enseignement du basque et en basque les possibilités ouvertes par les nouvelles technologies.
- 3/ Viser pour les élèves scolarisés dans les filières d'enseignement en basque un niveau de maîtrise complète de la langue :
 - 3.1. Accompagner les partenaires du système éducatif dans les efforts menés pour garantir les compétences linguistiques des élèves.
 - 3.2. Susciter la pratique de la langue au sein des établissements scolaires, en dehors des cours.

3/ ENSEIGNEMENT

ERRONKA NAGUSIA

Euskararen transmisioan baitezpadako tresna bihurtu den eskolan, hizkuntzaren irakaskuntza garatu eta egituratu, euskara aldi berean hizkuntza irakatsia eta irakaskuntzarako hizkuntza izanki

ORIENTABIDE ESTRATEGIKOAK

- 1/ Familiei eman, lurralde osoan, beren haurrentzat euskarazko irakaskuntza baten hautatzeko aukera, euskarazko irakaskuntza eskaintza garatuz eta egituratuz :
 - 1.1. Euskarazko irakaskuntza eskaintza garatu.
 - 1.2. Etorkizunari begira, euskarazko irakaskuntzarako irakasle postu beharrak aitzinetik begiztatu eta bete.
 - 1.3. Euskarazko irakaskuntzen antolakuntza egokitu.
- 2/ Irakasleak, euskaraz lan egiteko beharrezkoak dituzten tresnak eta gaitasunak eskuratzen lagundu :
 - 2.1. Euskarazko irakasleen formakuntza beharrei erantzuten lagundu.
 - 2.2. Ikasmaterialaren ekoizteaz arduratzen diren egiturak, kalitatezko produktuen sortzen eta zabaltzen lagundu.
 - 2.3. Teknologia berriek irakaskuntzarako irekitzen dituzten bideetaz baliatu.
- 3/ Euskarazko irakaskuntzan diren ikasleen euskarazko gaitasun osoaren erdiestea segurtatu :
 - 3.1. Irakaskuntzako partaideak, ikasleek hizkuntza gaitasunen erdiesteari begira eramaten dituzten ahaleginetan lagundu.
 - 3.2. Erabilpenaren bidez, irakaskuntzak euskararen kalitate osora heltzeko egiten dituen indarrak azkartu.

3/ IRAKASKUNTZA

AXES DE TRAVAIL

1/ Permettre aux familles qui le souhaitent de bénéficier sur l'ensemble du territoire d'une offre d'enseignement structurée et cohérente.

1.1. Développer l'offre d'enseignement :

Poursuivre la mise en œuvre du volet 1 de la programmation pluriannuelle de l'offre d'enseignement du basque et en basque établie en 2005 :

Mettre en œuvre le calendrier et le mode opératoire définis pour l'enseignement public, l'enseignement catholique et la fédération Seaska, à la fois pour l'enseignement primaire et l'enseignement secondaire, dans le respect des trois principes retenus :

Libre adhésion des familles.

Couverture territoriale.

Continuité d'enseignement entre les différents niveaux d'enseignement.

(cf. en annexe, synthèses graphiques résumant les principales orientations).

Mener le même travail de programmation pour les niveaux d'enseignement non traités à ce jour :

L'enseignement technologique et professionnel.

L'enseignement agricole.

L'enseignement supérieur.

1.2. Prévoir et répondre aux besoins en formation des maîtres :

Prévisions des besoins liés aux ouvertures (cf. programmation).

Prévisions des besoins en postes sur sites existants (cf. programmation).

Prise en compte de la structure par âge du corps enseignant.

1.3. Structurer les modes d'organisation de l'enseignement du basque et en basque :

Achever le travail de diagnostic engagé sur les modalités d'organisation de l'enseignement du basque et en basque dans les collèges et lycées (quotités horaires, matières enseignées, composition des groupes, plages horaires,...)

LAN ARDATZAK

1/ Familiei eman, lurralde osoan, beren haurrentzat euskarazko irakaskuntza baten hautatzeko aukera, euskarazko irakaskuntza eskaintza garatuz eta egituratuz.

1.1. Euskarazko irakaskuntza eskaintza garatu :

2005ean finkatu euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatze eta egituratzearen epe luzeko programazioaren lehen zatiaren obratzen jarraiki :

Irakaskuntza publikoarentzat, irakaskuntza girixtinoarentzat eta Seaskarentzat definitu jardunbideak eta egutegiak gauzatu, lehen mailan zein bigarrean, adostuak izan diren 3 printzipioei jarraikiz :

Familien hautu librea.

Lurralde osoaren estaltzea.

Irakaskuntza maila ezberdinen arteko irakaskuntzen jarraipena.

(ik. eranskinetan norabide nagusiak laburbiltzen dituzten sintesia grafikoak).

Gisa berean, programazio lan bat eraman, orain arte aztertu gabe dauden beste irakaskuntza sailetan :

Formakuntza tekniko eta profesionaletan.

Laborantzazko irakaskuntza.

Goi mailako irakaskuntza.

1.2. Etorkizunari begira, euskarazko irakaskuntzarako irakasle postu beharrak aitzinetik begiztatu eta bete :

Euskarazko klase irekitzeak aitzinetik ikusiz (ikus programazioa).

Dauden euskarazko irakasguneetan, beharrezkoak izanen diren postuak aitzinetik begiztatuz.

Irakasle goa adinaren arabera sailkatu, ondoko urteetako postu beharren aitzinikusteko.

1.3. Euskarazko irakaskuntzen antolakuntza egokitu :

Kolegio eta lizeoetan abiatu irakaskuntzen antolaketa azterketa kualitatiboa bururatu (euskarazko oren kopuruak, gaiak, ikasle taldeak, egutegiak...).

AXES DE TRAVAIL

enseignées, composition des groupes, plages horaires...)
A partir de ce diagnostic, fixer et mettre en oeuvre les orientations visant à consolider qualitativement l'organisation de l'enseignement du basque et en basque.

Procéder à la même démarche pour l'enseignement primaire.

2/ Aider les enseignants à accéder aux outils et aux compétences nécessaires à l'exercice de leur mission.

2.1. Répondre aux besoins en formation linguistique des enseignants :

Consolider la formation linguistique dans le cursus de formation initiale des futurs maîtres :

Fixation d'objectifs, outils d'évaluation,... en partenariat avec les centres de formation.

Répondre par la formation continue aux attentes dans le domaine du perfectionnement linguistique :

Recueil des besoins, montage de modules de formation adaptés, en partenariat avec les différents acteurs du système éducatif.

2.2. Accompagner les opérateurs spécialisés dans la production de matériel pédagogique :

Poursuivre la mise en oeuvre des programmes éditoriaux en cours.

Compléter l'offre de manuels et autres supports pédagogiques en orientant les futurs programmes éditoriaux au regard d'une analyse permanente des besoins.

Accompagner le déploiement des nouvelles technologies par une formation adéquate auprès des structures productrices et des utilisateurs.

Aider à la formation linguistique des professionnels chargés de la production des matériels pédagogiques.

3/ ENSEIGNEMENT

LAN ARDATZAK

Azterketa hortarik abiatuz, irakaskuntzen egokitze plangintza adostu eta obratu.

Gisa berean jokatu lehen mailari doakionez.

2/ Irakasleak, euskaraz lan egiteko beharrezkoak dituzten tresnak eta gaitasunak eskuratzen lagundu.

2.1. Euskarazko irakasleen formakuntza beharrei erantzuten lagundu :

Jatorrizko formakuntzan, biharko irakasleen hizkuntza gaitasun osoaren eskuraztea segurtatu :

Ikas zentroekin partaidetzan, lehen mailan zein bigarrenean euskaraz ariko diren irakasleen formakuntza prozesuan, mailaz maila ikasbideek eskatzen dituzten hizkuntza gaitasunak, eta gaitasun horien neurtzeko tresnak gogoetatu eta definitu.

Gaitasun horien erdiesteko hartzekoak litezkeen neurriak eta plantan jartzekoak litezkeen antolaketak definitu, hitzartu eta obratu.

Formakuntza jarraikiaren bidez, hizkuntza gaitasunen hobetzeko gaur egungo formakuntza beharrei ihardesten lagundu :

Lehen eta bigarren mailako irakasleen formakuntza beharren azterketatik abiatuz, beharrei ihardesteko formakuntza egitura egokiak definitu eta muntatu, irakaskuntzako aktore ezberdinekin partzuergoan.

2.2. Ikasmaterialaren ekoizpenaz arduratzen diren egiturak, kalitatezko produktuen sortzen eta zabaltzen lagundu :

Gaur egungo ekoizpen programen obratzen jarraiki.

Ikasmaterial eskaintza osatu, ondoko argitalpen programak beti beharren arabera definituz.

Teknologia berrien garapenari jarraikiz, ekoizpenaz arduratzen diren egituren eta erabiltzaileen formakuntza egokitzen lagundu.

Ikasmaterial ekoizpenaz arduratzen diren profesionalen hizkuntza formakuntza lagundu.

3/ IRAKASKUNTZA

2.3. Utiliser pour l'enseignement du basque et en basque les possibilités ouvertes par les nouvelles technologies :
 Accompagner le développement des Espaces Numériques de Travail (ENT) dans l'enseignement du basque et en basque.
 Développer les systèmes personnels permettant à l'élève d'accroître le temps de pratique et d'exposition à la langue :
 Repérer, analyser et organiser l'utilisation des supports les plus adaptés (CD, ressources gravées sur internet, MP3...)
 Définir des contenus adaptés (modules d'apprentissage, jeux pédagogiques, exercices de répétitions...).

3/ Viser pour les élèves scolarisés dans les filières d'enseignement en basque un niveau de maîtrise complète de la langue.

3.1. Accompagner les partenaires du système éducatif dans les efforts menés pour garantir les compétences linguistiques des élèves :

Fixer pour l'ensemble des processus d'apprentissage du basque et en basque les compétences à atteindre niveau par niveau en matière d'acquisition de la langue :

Poursuivre et achever les travaux engagés dans ce sens.

S'appuyer sur les systèmes de références existants (cadre européen).

Convenir des modalités d'évaluation correspondantes et mettre en place le dispositif permanent de mesure.

Prendre en compte la dimension spécifique du basque en tant que langue d'enseignement dans la fixation des objectifs qualitatifs.

2.3. Teknologia berriek irakaskuntzarako irekitzen dituzten bideetaz baliatu :

1.2. Organiser l'adaptation, la création et la diffusion d'une offre complète et de qualité en matière de biens de loisirs en langue basque :

Viser une offre éditoriale de langue basque complète et de qualité et faciliter sa diffusion auprès du public (cf 6/ *Edition*).

Adapter, enrichir et diffuser l'offre de jeux et matériels à caractère ludique en langue basque :

A partir de l'analyse qualitative de l'offre existante, définir et mettre en œuvre un programme des adaptations nécessaires et des créations complémentaires à prévoir.

Organiser la diffusion de l'offre à des prix non prohibitifs :

En s'appuyant sur le réseau des points de vente et bibliothèques-médiathèques spécialisés dans l'offre de langue basque.

En créant un dispositif itinérant de diffusion au public de l'ensemble de l'offre de langue basque tous supports et tous domaines (édition, jeux, supports multimédias, outils et supports pédagogiques...).

En créant un dispositif de location-mise à disposition, destiné aux structures et professionnels spécialisés dans l'accueil de l'enfance et de la jeunesse (petite enfance, centres de loisirs et de vacances, établissements scolaires...).

Développer l'offre disponible sur internet, en particulier destinée aux jeunes publics :

A partir d'une connaissance des pratiques, goûts et centres d'intérêt des publics ciblés et de l'offre actuellement disponible, définir et mettre en œuvre un programme de développement des contenus, espaces, outils et autres biens en langue basque sur internet, en impulsant la participation des jeunes à tous les niveaux y compris au processus de définition et de création des contenus et produits à développer : blogs, forums, messagerie instantanée, jeux, films, dessins animés, produits médias et multimédias, outils pédagogiques...

1.2. Euskarazko aisialdirako tresna eta materialaren eskaintza zabal eta kalitatezko bati buruz joan, beharrezkoak diren egokitzeak eta sortzeak antolatuz :

Euskarazko argitalpen eskaintza oso bati buruz joan, eta publikoaren eskuetan ezarri (ikus 6/ *Argitalpena*).

Euskarazko aisialdirako joko eta materialaren eskaintza egokitu, aberastu eta zabaldu :

Gaurko eskaintzaren azterketa kualitatibotik abiatuz, beharrezkoak diren egokipenen eta sorkuntzen plangintza definitu eta obratu.

Hedapena antolatu, prezio onargarrian :

Euskarazko eskaintzan berezitu saltegien eta liburutegien sareetaz baliatuz.

Zerbitzu ibilkaria sortuz, euskarazko eskaintza guzua (liburu, joko, kd-rom, ikasmateriala...) publikoarengana hurbiltzeko.

Haur eta gazteekin lan egiten duten egiturei eta profesionali zuzendu prestaketa zerbitzu bat plantan jarri (lehen haurtzaroko egitura eta profesionalentzat, aisialdi eta opor zentroentzat, ikastetxeentzat...).

Interneteko euskarazko eskaintza garatu, bereziki haur eta gazteei zuzendua zaiena :

Haur eta gazteen interneteko praktiken eta gustuen ezagutzatik abiatuz, gaurko eskaintza kontuan hartuz.

Eremu ezberdinak kontuan hartuz : edukiak, guneak, tresnak...

Publiko gazteen parte hartzea bultzatuz maila guzietan, sortzekoak ditezkeen edukien eta produktuen definizioan, sorkuntza prozesuaren baitan : blog, txat, forum, jokoak, filmak, marrazki bizidunak, ikasmateriala...

2/ Permettre aux professionnels des loisirs d'accéder aux outils et aux compétences nécessaires.

2.1. Organiser une réponse adaptée aux besoins actuels et futurs de formation de professionnels exerçant en langue basque dans le domaine des loisirs :

Aider la formation linguistique des professionnels en exercice :

Domaine par domaine, recenser les besoins en sports, culture, centres de loisirs et de vacances...

Mettre en place, avec les structures concernées et en partenariat avec les opérateurs de l'apprentissage du basque aux adultes, des réponses adaptées aux besoins identifiés, en s'appuyant sur les dispositifs de formation continue, en favorisant la mise en place de groupes de formation constitués à partir d'objectifs et d'intérêts communs.

Organiser avec les centres de formation initiale aux métiers du sport, de la culture et des loisirs, la formation linguistique des élèves volontaires.

Répondre aux besoins d'animateurs agréés capables et désireux d'intervenir en langue basque pour les centres de loisirs et de vacances, pour les établissements scolaires, pour les communes..., mettre en œuvre, avec les structures sportives, culturelles et de loisirs, un plan de formation des animateurs qui le souhaitent.

Viser l'équivalence des diplômes de part et d'autre de la frontière, afin de favoriser la mobilité des professionnels compétents et aptes à intervenir en langue basque.

Mener un travail spécifique avec les responsables des centres d'hébergement de groupes afin de favoriser la formation linguistique des personnels volontaires.

2.2. Aider les professionnels à disposer des outils, matériels et ressources dont ils ont besoin :

Organiser un réseau de centres d'hébergement de groupes susceptibles d'assurer, dans des conditions satisfaisantes notamment en terme de diversité, l'accueil de séjours en langue basque pour les enfants et les jeunes :

2/ Profesionalei eman euskaraz lan egiteko behar dituzten tresnak eta gaitasunak.

2.1. Aisialdiko profesionalen hizkuntza formakuntza beharrei erantzun :

Dauden profesionalen hizkuntza formakuntza lagundu :

Eremuz eremu (kirola, kultura, aisialdia), beharrak bildu.

Egiturekin eta helduen euskalduntzeaz arduratzen diren eragileekin partaidetzan, beharrei erantzuteko formakuntza egokituak antolatu, formakuntza jarraikiaz baliatuz, helburu eta interes berdinak dauzkaten pertsonen arteko formakuntza taldeak sortzea sustengatuz, metodoak eta ikasmaterialak taldeen beharrei egokituz.

Eremuz eremu (kirola, kultura, aisialdia), jatorrizko formakuntzaz arduratzen diren ikas-zentroekin, hizkuntza formakuntza antolatu, euskaraz lan egitea gogo duten ikasleek jatorrizko formakuntzan berean hizkuntza gaitasunen erdiesteko parada ukan dezaten.

Aisialdi eta opor zentroentzat, ikastetxeentzat, herrientzat... euskaraz lan egiteko gai eta prest litezkeen animatzaile beharrei erantzun, besteak beste kirol, kultura eta aisialdi egiturekin partaidetzan, nahikundea duten langileen formakuntza plangintza plantan jarritz.

Mugaz bi alderdietako diplomen baliokidetasunari buruz joan, euskaraz aritzeko gai diren profesionalak bi aldeetan lana egin ahal izateko gisan.

Taldeen harrerako aterbe zentroen arduradunekin partaidetzan, zentroetan euskararen ikasteko edo hobetzeko nahikaria duten langileen hizkuntza formakuntza bultzatu eta antolatu.

2.2. Profesionalek euskaraz lan egiteko beharrezkoak dituzten tresna eta baliabideak sortu eta zabaldu :

Haur eta gazteei zuzenduak diren aterbeen sare bat muntatu, euskarazko egonaldiak baldintza egokietan segurtatzeko gisan :

En examinant avec les organismes propriétaires et gestionnaires du territoire, la faisabilité d'une mise à disposition pour l'accueil des séjours d'équipements existants adaptés et non utilisés en permanence (établissements scolaires, centres de vacances, structures hôtelières...).

En utilisant les possibilités d'organisation de séjours dans la Communauté Autonome Basque et en Navarre.

En privilégiant la localisation dans un environnement bascophone de manière à concrétiser la langue basque comme une langue de vie et non pas seulement comme une langue d'étude.

En privilégiant la localisation dans un environnement disposant d'une offre intéressante en matière d'activités de loisirs pour les jeunes.

Mettre à disposition des professionnels les outils dont ils ont besoin pour exercer en langue basque :

Domaine par domaine, recenser les besoins, en partenariat avec les structures et professionnels concernés (supports pédagogiques, lexiques spécialisés, jeux, outils multimédias, cd-rom...)

A partir de l'offre déjà existante, identifier et mettre en œuvre les adaptations et créations complémentaires nécessaires.

Organiser la diffusion en direction des professionnels.

Prévoir des sessions de formation à l'utilisation des outils diffusés et à l'exercice du métier en langue basque.

2.3. Créer un lieu d'échange et de partage pour les professionnels des loisirs intervenant en langue basque :

Partage d'expériences et de compétences, aides mutuelles, réflexions sur les outils, relations avec les familles, projets d'activités à proposer aux parents pour une plus grande pratique de la langue...

Urte osoan baliatuak ez diren lurraldeko egoitza egokien jabe eta kudeatzaileekin, hizkuntza egonaldiak zentro horietan antolatzearen egingarritasuna aztertuz (ikastetxeak, opor zentroak, ostatuak...).

Egonaldiak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan antolatzeko paradaz baliatuz.

Ingurumen euskaldunak lehenetsiz, ikasleentzat euskara bizitzeko hizkuntza izateko gisan, eta ez eskolako bakarrik.

Haur eta gazteentzat aisialdi jarduera eskaintza interesgarria daukaten eskualdeak hautatuz.

Tresnak profesionalen eskura jarri :

Eremuz eremu beharren itzulia egin, egitura eta profesionalekin partaidetzan (tresna pedagogikoak, hiztegi berezituak, jokoak)...

Gaurko eskaintzatik abiatuz, beharrezkoak diren egokitze eta sortzeak begiztatu eta obratu.

Profesionalei zabalduak zaizkien tresnen baliatzeko eta euskaraz lan egiten trebatzeko formakuntza saio bereziak antolatu.

2.3. Euskaraz ari diren aisialdiko profesionalen elkargunea sortu :

Elkargunearen nondik norakoak profesionalen beharren arabera antolatu : elgar trukatzeko, esperientzia eta konpetentzien partekatzea, euskaraz ari diren profesionalak elkar trebatzen laguntzea, lan tresnetaz elkarren artean gogoetatzea, familiei zuzendu euskarazko jarduerak partaidetzan asmatzea eta muntatzea...

ENJEU MAJEUR



Faciliter la structuration d'une chaîne opérante pour l'édition en langue basque au service d'une offre attractive et accessible

ORIENTATIONS STRATEGIQUES



- 1/ Viser une offre éditoriale de langue basque complète et de qualité :
 - 1.1. Renforcer les acteurs de la chaîne d'édition en langue basque.
 - 1.2. Compléter l'offre d'édition en langue basque.
 - 1.3. Adapter aux spécificités territoriales la production en langue basque.
- 2/ Faciliter la diffusion auprès du public de l'offre d'édition en langue basque :
 - 2.1. Permettre au public d'accéder à l'offre d'édition en langue basque, en tout point du territoire et à l'extérieur.
 - 2.2. Donner à connaître au public l'offre éditoriale en langue basque.
 - 2.3. Amener les publics, surtout les jeunes, à s'initier à l'offre éditoriale en langue basque et à l'apprécier.
 - 2.4. Faire connaître au public non-bascophone la production en langue basque, tant sur le territoire qu'à l'extérieur.

6/ EDITION

ERRONKA NAGUSIA



Euskarazko argitalpen kate eraginkorra egituratu, argitalpen eskaintza erakargarria eta eskura erraza jendetaratzeko gisan

ORIENTABIDE ESTRATEGIKOAK



- 1/ Euskarazko argitalpen eskaintza zabal eta kalitatezko bati buruz joan :
 - 1.1. Euskarazko argitalpen katearen autoreak indartu.
 - 1.2. Euskarazko ekoizpen eskaintza osatu.
 - 1.3. Euskarazko ekoizpen eskaintza lurraldearen egoerari egokitu.
- 2/ Euskarazko argitalpen eskaintza publiko zabalaren eskuetan ezarri :
 - 2.1. Publikoari eman, lurralde osoan zein lurraldetik kanpo, euskarazko argitalpen eskaintza eskuratzeko aukera.
 - 2.2. Euskarazko argitalpen eskaintza publikoari ezagutzera eman lurralde osoan zein lurraldetik kanpo.
 - 2.3. Euskarazko argitalpen eskaintza ezagutzera eta goatzera eman, haur eta gazteak lehenetsiz.
 - 2.4. Euskarazko argitalpen eskaintza euskalduna ez den publikoari ezagutzera eman lurraldean zein lurraldetik kanpo.

6/ ARGITALPENA

1/ Viser une offre éditoriale de langue basque complète et de qualité.

1.1. Renforcer les acteurs de la chaîne d'édition en langue basque :

Aider les auteurs :

Définir et mettre en œuvre un dispositif de soutien à la création en langue basque (résidences d'auteurs, droits d'auteurs, prix littéraires, appel à projets...) en partenariat avec les auteurs et les professionnels.

Soutenir les magazines littéraires.

Aider les maisons d'édition :

Accompagner les maisons d'édition qui souhaitent s'engager dans une démarche de professionnalisation : processus de production, gestion des projets éditoriaux, gestion de la structure, stratégies commerciales...

Organiser des réponses aux besoins de formation : recueil des besoins, montage de formations...

Aider les maisons d'édition à organiser les fonctions de correction des ouvrages produits.

Susciter et accompagner des relations de partenariats entre les maisons d'édition volontaires : échange d'informations, de méthodes, d'expériences, initiatives à prendre en commun dans le domaine de la production, de la promotion...

Accompagner la constitution d'un réseau, d'une association des maisons d'édition, s'appuyant sur la réalisation préalable d'une cartographie exhaustive des éditeurs de part et d'autre de la frontière, dressant une typologie des éditeurs et de leur production.

Structurer des relations régulières de travail avec les organismes publics et les dispositifs d'aide existants au niveau régional, national et européen, et au sein de la Communauté Autonome Basque :

Par souci de cohérence entre les politiques publiques pouvant concerner l'édition en langue basque.

Pour faciliter aux acteurs de l'édition en langue basque l'accès aux différentes initiatives prises en matières de formation, de participation à des salons, d'aides à l'édition...

1/ Euskarazko argitalpen eskaintza zabal eta kalitatezko bati buruz joan.

1.1. Euskarazko argitalpen katearen aktoreak indartu :

Autoreak lagundu :

Euskarazko sorkuntza prozesua molde eraginkorrean susta lezakeen egitura definitu eta plantan jarri (idazleentzako egonaldiak, literatur sariak, proiektu deialdiak...), idazleekin eta profesionalekin partaidetzan.

Literatur aldizkariak sustengatu.

Argitaletxeak lagundu :

Nahikundea duten argitaletxeak profesionalizatzeko egokitze prozesu baten eramaten lagundu : ekoizpen prozesuak, argitalpen egitasmoen kudeaketa, enpresaren kudeantza, merkaturatze egin-moldeak...

Formakuntza beharrei erantzun ; beharren biltzetik abiatuz, araberako formakuntza egokituak antolatu.

Argitaletxeak, euskarazko argitalpen ekoizpenen hizkuntza zuzenketa antolatzen lagundu.

Gogoia duten argitaletxeen artean, partaidetza eta elkarlan harremanak bultzatu eta lagundu ; informazio, metodo, kompetentzia eta esperientzien... elkar trukaketa, ekoizpen lankidetzak, elkarrekin promozioa antolatu...

Argitaletxeen sarea edota elkarte baten sortzea lagundu, mugaz bi aldeetako argitaletxeen eta argitalpenen tipologia egiten duen kartografiatik abiatuz.

Europa, Frantzia, Akitania mailan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan argitalpen alorrean eskumena duten erakundeekin lan harreman iraunkorrak eraiki, laguntza egitura ezberdinekin lotura segurtatuz :

Euskarazko argitalpenari zuzenduak zaizkion politikak, elkarren artean koherentzian finkatzeko gisan.

Euskarazko argitalpeneko eragileak, erakunde ezberdinekin plantan jarri ekimenetaz baliatzen laguntzeko (formakuntza, azokak, argitalpenarentzako laguntzak...).

Argitalpen katearen eremu ezberdinetako profesionalen arteko lan harreman iraunkorra bultzatu (idazle, argitaletxe, saltagi, liburutegi...), elkar ezagutzari esker, esperientzia eta kompetentzia trukatzearen bidez, elgarren azkartzeko gisan.

Inciter des relations de travail régulières entre les professionnels des différents maillons de la chaîne d'édition : auteurs, éditeurs, diffuseurs, vendeurs, bibliothèques... dans le but d'un renforcement réciproque par la connaissance mutuelle et l'échange d'expériences et compétences.

1.2. Compléter l'offre d'édition en langue basque :

Aider l'édition de nouveaux produits, en particulier à destination des publics prioritaires (public jeune, jeunes parents, familles) :

Appel à projets pour les éditeurs, prix à la création, résidence d'auteurs ou de traducteurs... (BD, théâtre, littérature jeunesse, ouvrages de loisirs, vie familiale...).

En s'appuyant sur l'expertise des professionnels de la chaîne de l'édition.

Aider l'édition d'auteurs locaux, à destination notamment des établissements scolaires.

Aider la traduction en langue basque d'ouvrages importants.

Aider la réédition des ouvrages épuisés.

Aider l'édition de matériels de lecture rédigés en langue simplifiée adaptés aux différents niveaux des personnes apprenant le basque.

Aider à l'édition en langue basque sur les nouveaux supports (Internet, CD, DVD, supports adaptés aux mal voyants...) :

Listes de priorités à définir en partenariat avec les maisons d'édition, les associations de parents d'élèves, les partenaires de l'éducation...

1.3. Adapter aux spécificités territoriales la production en langue basque :

Adaptation aux particularités dialectales :

Promouvoir l'usage du basque local dans tous les dispositifs d'aide mis en place.

Adapter aux dialectes locaux une partie de la production déjà existante à partir d'un travail de définition des priorités mené avec les professionnels.

Adaptation à la situation sociolinguistique :

Faciliter la diffusion de l'offre éditoriale de langue basque notamment en proposant des présentations synthétiques en français des ouvrages, dans le souci de faciliter le travail des libraires, bibliothécaires...

1.2. Euskarazko ekoizpen eskaintza osatu :

Eduki berri batzuen argitaratzea lagundu, haur eta gazteei, aitama gazteei eta familiei zuzendu argitalpenak lehenetsiz :

Argitaletxeei zuzendu deialdiak, literatur sariak, idazle zein itzultzaileei zuzendu egonaldiak eta beste.

Ondoko sailetan lehentasuna jarri : komikiak, antzerkiak, haur eta gazte literatura, familiari zuzendu liburu praktikoak, aisialdirako liburuak, tokian-tokiko literatura.

Argitalpen kateko profesionalen ezagutzatik abiatuz.

Tokiko euskal idazleen antologiaren argitalpena lagundu, besteak beste ikastetxeei zuzentzeko.

Euskarazko itzulpengintza lagundu.

Agortuak dauden liburuen berrargitalpena lagundu.

Euskara ikasten ari diren pertsonen hizkuntza maila ezberdineko irakurgai erraz batzuen argitalpena lagundu.

Euskarri berrietan argitalpena lagundu (internet, KDak, DVDak, bista ezindua dutenentzako euskarriak...) :

Argitaletxeekin, guraso elkarteekin, irakaskuntzako eragileekin partaidetzan, gaur egungo eskaintzatik abiatuz, euskarri ezberdinetan ekoiztekoak litezkeen produktuak zerrendatu eta lehentasunak finkatu.

Ekoizpen programa obratu.

1.3. Euskarazko ekoizpen eskaintza lurraldearen egoerari egokitu :

Lurraldearen euskalkiari egokitu :

Lagundu sailetan, lurraldearen euskalkien erabilera sustatu.

Gaurko euskarazko eskaintza lurraldeetako euskalkiei egokitu sail estrategikoetan (komikiak, haur eta gazte literatura...), lehentasunak profesionalekin finkatu.

Ekoizpena lurraldearen egoera soziolinguistikoari egokitu :

Euskarazko argitalpenaren zabaltzea erraztu, besteak beste ekoizpenetan frantsesezko aurkezpen bat ezarri, liburu publikoaren eskuetan jarriko dutenen lana errazteko xedez (saltegien, liburutegien, ikastetxeetako langileak).

Ekoizpen elebidunen eta frantsesezko liburu klasikoaren itzulpenen argitalpena lagundu, euskara ikasten ari direnei edo hizkuntza aski menperatzen ez dutenei, euskarazko irakurmena

libraires, bibliothécaires.

Promouvoir l'édition des produits bilingues ou des traductions classiques pour faciliter la lecture en basque par les personnes apprenant ou n'ayant pas une maîtrise totale de la langue (ex. ouvrages pour les enfants).

2/ Faciliter la diffusion auprès du public de l'offre d'édition en langue basque.

2.1. Permettre au public d'accéder à l'offre d'édition en langue basque, en tout point du territoire et à l'extérieur :

Structurer un réseau de points de vente spécialisés dans l'offre d'édition en langue basque, incluant les grands magasins spécialisés :

A partir de la situation actuelle, définir une carte prévisionnelle du réseau de vente afin de permettre, sur les différents secteurs géographiques, l'accès par le public à l'édition en langue basque.

Etablir les partenariats nécessaires pour créer et organiser ce réseau : modalités de présentation de l'offre en langue basque, durée de la mise en vente, opérations de communication, animations à mettre en place.

Impulser et accompagner la formation des professionnels, tant au niveau de la langue que de la littérature basques.

Structurer un réseau de bibliothèques / médiathèques spécialisées dans l'offre en langue basque :

A partir de la situation actuelle, solliciter compte tenu du principe de couverture territoriale, les bibliothèques et médiathèques du Pays Basque en partenariat avec les collectivités compétentes.

Etablir les partenariats nécessaires pour créer et organiser ce réseau : aménagement d'espaces attractifs, actions de communication et d'animation, actions de formation et de sensibilisation des salariés.

Impulser et accompagner la formation des professionnels, tant au niveau de la langue que de la littérature basques.

irakurmena errazteko gisan (ad. ikas prozesuan daudenak ikasle eta helduak, euskaraz ikasten ari diren haurren aitama ez euskaldunak).

2/ Euskarazko argitalpen eskaintza publiko zabalaren eskuetan ezarri.

2.1. Publikoari eman, lurralde osoan zein lurraldetik kanpo, euskarazko argitalpen eskaintzaren eskuratzeko aukera :

Euskarazko argitalpen eskaintzan berezitu saltegien sare bat eraiki : Oraingo egoeratik abiatuz, lurralde osoan euskarazko argitalpen eskaintza eskuragarria jar lezakeen saltegien karta definitu, megadenda berezituak barne jarritz.

Saltegien arduradunekin partaidetzak eraiki, sare horren xutik ezartzeko eta saltegiak euskarazko argitalpen eskaintzaren merkatuan jartzen laguntzeko : euskal argitalpenen espazio erakargarria, eskaintza zabala, salmentaren iraupena, komunikazio eraginkorra, animazio batzuen antolatzea...

Profesionalen formakuntza bultzatu eta lagundu, dela hizkuntzari begira, dela euskal literaturari begira.

Euskarazko argitalpen eskaintzan berezitu liburutegi eta irakur-gune publikoen sare bat eraiki :

Oraingo egoeratik abiatuz, eskumena duten erakunde publikoekin partaidetzan, lurralde osoan euskarazko argitalpen eskaintza eskuragarria jar lezakeen liburutegi-mEDIATEKA eta irakur-guneen sarea definitu eta sortu (ibilkaria barne).

Sarearen sortzeko eta antolatzeko beharrezkoak diren partaidetzak eraiki, eta euskarazko argitalpen eskaintza agerian ematen lagundu : euskal argitalpenen espazio erakargarria, eskaintza zabala, komunikazio eraginkorra, animazio batzuen antolatzea...

Profesionalen formakuntza bultzatu eta lagundu, dela hizkuntzari begira, dela euskal literaturari begira.

Organiser la diffusion vers les établissements scolaires, des ouvrages édités en langue basque :

Définir et mettre en place un système de diffusion adapté aux établissements scolaires en lien avec les collectivités concernées.

Aider les documentalistes et les enseignants à rendre plus accessibles les ouvrages édités en langue basque : aménagement d'espaces, actions d'animation et de communication, mise en place de formations...

Organiser la diffusion en direction de la diaspora basque.

2.2. Donner à connaître au public l'offre éditoriale en langue basque, ici et ailleurs :

Créer un site Internet de l'édition en langue basque :

Faisabilité, définition, et mise en oeuvre en partenariat avec les professionnels de l'édition et de la diffusion.

Créer des supports de diffusion de l'information autour de l'offre en langue basque :

Choix, définition et mise en oeuvre en partenariat avec les maisons d'édition et de diffusion (ex. catalogue, newsletter, publications spécialisées...).

Accompagner la participation aux foires et salons spécialisés, et autres actions de communication menées au Pays Basque comme à l'extérieur.

Mener des actions de promotion des auteurs et de l'offre éditoriale de langue basque, notamment dans les points de vente, les établissements scolaires, les médias d'expression basque et non-basque, en partenariat avec les professionnels.

2.3. Amener les publics, surtout les jeunes, à s'initier et à apprécier l'offre éditoriale en langue basque :

Promouvoir des animations pédagogiques dans les établissements scolaires tant au niveau de la lecture que de l'écriture, (participation d'écrivains, ateliers d'écriture...) :

Partenariats à établir avec les enseignants, les conseillers pédagogiques, les auteurs.

Euskarazko argitalpen eskaintza euskarazko irakaskuntza proposatzen duten ikastetxeetan zabaltzea antolatu :

Eskumena duten erakunde publikoekin eta ikastetxeetako arduradunekin partaidetzan, ikastetxeetan euskarazko argitalpen eskaintzaren banaketa sistema eraginkorra definitu eta plantan jarri. Ikastetxeetako liburutegi eta dokumentazio zentroetako langileak eta irakasleak, euskarazko argitalpen eskaintzaren ikasleen eskuetan jartzen lagundu: euskal argitalpenen espazio erakargarria, eskaintza zabala, komunikazio eraginkorra, animazio batzuen antolatzea, profesionali egokitu formakuntzak..

Euskarazko argitalpen eskaintza osoa molde eraginkorrean zabaltzeko banaketa sistema amankomun bati buruz joan :

Argitaletxeekin molde hitzartuan, egokiena litekeen banaketa sistema gogoetatu, definitu eta plantan jarri.

Munduan gaindi bizi diren euskaldunei buruzko zabalkuntza antolatu.

2.2. Euskarazko argitalpen eskaintza publikoari ezagutzera eman, lurraldean zein lurraldetik kanpo :

Euskarazko argitalpen eskaintzaren webgunea sortu :

Argitaletxeekin eta liburu saltegiekin partaidetzan, webgunea definitu eta gauzatu.

Euskarazko argitalpenari buruzko komunikazio euskarri berezituak sortu :

Argitaletxeekin eta liburu saltegiekin partaidetzan, beharrezko komunikazio euskarriak hautatu eta sortu (newsletter ; katalogo ; sail eta publiko berezi batzuei egokitu ostoak).

Merkatu eta azoka profesioletan, zein beste komunikazio egintzetan parte hartzen lagundu, nola Euskal Herrian hala Euskal Herritik kanpo.

Euskal idazleen eta argitalpenen promozio egintzak profesionalekin partaidetzan antolatu, besteak beste saltokietan, ikastetxeetan, euskarazko hedabideetan eta besteetan.

Accompagner la mise en valeur de la production en langue basque dans les événements organisés autour de l'écrit et de la lecture, et si besoin, créer des manifestations et des temps forts complémentaires, particulièrement en direction des publics prioritaires (ex : fête des ouvrages de littérature jeunesse, rencontres avec les auteurs, présentation d'ouvrage...).

Mener des actions de promotion de la lecture, en partenariat avec les maisons d'édition, les auteurs, l'association des écrivains de langue basque.

2.4. Faire connaître au public non-bascophone la production en langue basque, tant sur le territoire qu'à l'extérieur :

Aider à la création d'outils susceptibles d'intéresser les éditeurs (traduction en français d'ouvrages en langue basque, documents de présentation pour de la vente, conventions de coédition).

Favoriser les rencontres avec des éditeurs français ou étrangers qui pourraient être intéressés.

2.3. Euskarazko argitalpen eskaintza publikoari ezagutzera eta gozatzera eman, haur eta gazteak lehenetsiz :

Programa pedagogikoak muntatu ikastetxeetan, euskarazko argitalpen eskaintza haur eta gazteei jastatzera eta gozatzera emateko xedez, idazteko gustua emateko :

Haur eta gazteak gehien erakartzen dituzten alor eta gaiak hautatuz, antzerkia adibidez.

Idazleen parte hartzean oinarrituz.

Esperimentazio batzu eramanez (idazleen parte hartzearekin muntatu irakurketa saioak, idazte tailerrak...).

Partaidetza egokiak eraikiz irakasleekin, aholkulari pedagogikoekin, idazleekin...

Liburuaren eta idazketaren inguruan antolatzen diren egintza eta egun berezietan, euskal argitalpenaren agertzea eta baloratzea lagundu, eta beharrez egintza osagarriak sortu, bereziki lehentasuneko publikoari zuzenduak, adibidez haur eta gazte liburuaren besta, idazle batzuen inguruan antolatu gertakariak, liburu aurkezpenak...

Irakurketaren promozio egintzak antolatu; argitaletxeekin, idazleekin, euskal idazleen elkartearekin partaidetzan.

2.4. Euskarazko argitalpen eskaintza euskalduna ez den publikoari ezagutzera eman, lurraldean zein lurraldetik kanpo :

Argitaletxeak interesa ditzaketen tresnak sortu (euskarazko liburu batzuen itzulpenak frantsesera, salmentarentzat lagungarri izan daitezkeen aurkezpen dokumentuak, koedizio hitzarmenak).

Interesatuak izan daitezkeen Frantziako zein atzerriko argitaletxeekin harremanak lagundu.

ENJEU MAJEUR



Utiliser la toponymie comme une opportunité pour rendre la langue visible et attirer à elle de nouveaux publics

ORIENTATIONS STRATEGIQUES



- 1/ Ecrire correctement les toponymes basques :
 - 1.1. Organiser un système pérenne pour fixer la graphie de la toponymie en langue basque.
 - 1.2. Rechercher une graphie correcte pour les toponymes déjà présents dans le domaine public.
 - 1.3. Aider à la correction et à l'adaptation de la toponymie utilisée dans la sphère privée.
- 2/ Collecter les toponymes basques en voie de disparition :
 - 2.1. Aider à la collecte de la toponymie orale.
 - 2.2. Aider au recueil des sources écrites anciennes.
- 3/ Diffuser et rendre visible la toponymie de langue basque :
 - 3.1. Créer une base de données des toponymes de langue basque et la rendre accessible.
 - 3.2. Diffuser et faciliter l'utilisation de la toponymie basque.
- 4/ Utiliser la toponymie comme un outil d'initiation à la langue basque :
 - 4.1. Utiliser la toponymie pour inviter un plus large public à s'intéresser à la langue basque.
 - 4.2. Encourager les travaux de recherche linguistique utilisant la toponymie comme source d'investigation.

ERRONKA NAGUSIA



Toponimia, euskararen agerian jartzeko eta publiko berri baten euskarara erakartzeko aukera gisa baliatu

ORIENTABIDE ESTRATEGIKOAK



- 1/ Euskal toponimoak molde egokian idatzi :
 - 1.1. Euskarazko toponimoen grafia molde egokian idazteko sistema iraunkorra plantan jarri.
 - 1.2. Euskarazko toponimoak molde egokian idatzi eremu publikoan.
 - 1.3. Alor pribatuko euskarazko toponimoak molde egokian idazteko laguntza eman.
- 2/ Galtzekotan diren euskal toponimoak berreskuratu :
 - 2.1. Ahozko toponimiaren bilketa lagundu.
 - 2.2. Idatzizko iturri zaharretan dagoen toponimiaren berreskuratzea lagundu.
- 3/ Toponimoak jendartean zabaldu eta agerian eman :
 - 3.1. Toponimoen datubasea sortu eta publikoaren eskuetan jarri.
 - 3.2. Euskarazko toponimia ezagutarazi eta agerian eman.
- 4/ Toponimia iturburu gisa baliatu hizkuntzara hurbiltzeko :
 - 4.1. Toponimia tresna gisa baliatu euskararen lantzeko eta publiko berri bat euskarara erakartzeko.
 - 4.2. Toponimia iturri gisa baliatu euskararen ikertzeko.

1/ Ecrire correctement les toponymes basques.

1.1. Organiser un système pérenne pour fixer la graphie de la toponymie en langue basque :

Organiser au sein du Comité d'experts mis en place avec Euskaltzaindia, un service spécialisé sur la toponymie autour des trois fonctions suivantes :

Adaptation de la graphie déjà utilisée pour les toponymes basques.

Validation des nouveaux toponymes.

Conseils et corrections sur saisie des partenaires publics et privés.

Définir et faire connaître la méthodologie à suivre pour l'adaptation graphique de la toponymie en langue basque, en appliquant les normes et les critères d'Euskaltzaindia et en prenant en compte les spécificités locales.

1.2. Rechercher une graphie correcte pour les toponymes déjà présents dans le domaine public :

Pour la toponymie déjà existante, adapter la graphie des noms basques en commençant par les documents publics et ceux diffusés auprès d'un large public :

Achever le travail initié par Euskaltzaindia sur les toponymes des cartes IGN.

Démarrer un travail similaire avec les toponymes du cadastre.

Aider les organismes publics et parapublics à corriger la toponymie déjà usitée (offices de tourisme, communes, annuaire de France Telecom,...).

Aider les communes à adapter la signalétique déjà utilisée : noms de lieux et de rues, signalétique d'orientation (sentiers pédestres, pistes cyclables), tables d'orientation...

Pour la toponymie en création, proposer et structurer en amont un partenariat avec les opérateurs qui créent des toponymes (orientation et conseils en matière de graphie).

1/ Euskal toponimoak molde egokian idatzi.

1.1. Euskarazko toponimoen grafia molde egokian idazteko sistema iraunkorra plantan jarri :

Adituen Batzordearen baitan, euskal leku-izenen egokitzeaz arduratuko den zerbitzua Euskaltzaindiarekin antolatu, hiru funtzio nagusiren inguruan :

Gaurko euskal toponimoen grafiaren egokitzea.

Izen berrien idatz-moldearen onestea.

Eragile publiko eta pribatuen galdeei ihardesteko aholku ematea, zuzenketei zein izen berrien idazketari begira.

Euskarazko toponimoen grafiaren egokitzeo metodologia finkatu eta ezagutzera eman, Euskaltzaindiaren arauetara eta irizpidei jarraikiz, lurraldeko berezitasunak kontutan hartuz.

1.2. Euskarazko toponimoak molde egokian idatzi esparru publikoan :

Gaurko euskarazko izenen grafia egokitu, dokumentu publikoekin eta publiko zabala hunkitzen dituztenekin hasiz :

Euskaltzaindiak abiatu IGNeko mapetako euskarazko toponimoen grafiaren egokitze lana bururaino eraman.

Gisa berean, kadastrako euskal toponimoen egokitzea abiatu.

Tokiko erakunde publiko eta parapublikoak, baliatzen dituzten toponimoen egokitzen lagundu (turisma bulego, herri eta herri elkargo, France Telecom egituraren urtekaria...).

Herriak lagundu, seinaleztan agertzen diren euskarazko leku-izenen egokitzen : karrika eta leku izenak, norabide seinaleztza (oinez, pirripitaz... ibiltzeko xendra, bide eta bidexken seinaleztza...), norabide mahainak...

Hemendik goiti sortuko diren euskarazko toponimo berriak molde egokian idazten lagundu, partaidetza iraunkorrak proposatuz eta egituratuz leku-izenak sortzen dituzten eragileekin, aholku zerbitzua eskaintzeko gisan.

1.3. Aider à la correction et à l'adaptation de la toponymie utilisée dans la sphère privée :

Conseiller les opérateurs diffusant la toponymie (éditeurs de cartes, d'ouvrages de randonnée, presse écrite...) :

Sensibilisation à la graphie et partenariats à établir avec le Comité d'experts.

Conseiller les particuliers et les aménageurs sur la graphie des toponymes de maisons et opérations d'aménagement (lotissements, résidences...) :

Sensibilisation à la graphie et partenariats à établir avec le Comité d'experts.

2/ Collecter les toponymes basques en voie de disparition.

2.1. Aider à la collecte de la toponymie orale :

Fixer la méthodologie pour la collecte des toponymes oraux, en tenant compte des expériences déjà menées et en appliquant les normes et les critères d'Euskaltzaindia prenant en compte les spécificités locales.

Faire connaître le mode opératoire retenu et favoriser son utilisation.

Aider les projets de collecte en donnant priorité aux toponymes en voie de disparition (toponymie pastorale, de montagne, de village...).

2.2. Aider au recueil des toponymes figurant dans les sources écrites anciennes :

Etablir un recueil qualitatif des sources anciennes et le diffuser auprès du public.

Fixer une méthodologie de collecte, en appliquant les normes et les critères d'Euskaltzaindia prenant en compte les spécificités locales.

Faire connaître le mode opératoire retenu et favoriser son utilisation.

Aider les projets de collecte et diffuser les résultats des travaux conduits.

1.3. Alor pribatuko euskarazko toponimoak molde egokian idazteko laguntza eman :

Euskarazko toponimoak argitaratzen eta zabaltzen dituzten eragileak, izenak molde egokian idazten lagundu, aholku zerbitzua eskainiz (mapak, ibilaldi liburuak argitaratzen dituzten eragileak, prentsa idatzia...) :

Partaidetzako harremana eraiki eragileen eta Adituen Batzordearen artean.

Sentsibilisazio lana eraman.

Etxe eta beste eraikuntzen euskal izenak molde egokian idazten lagundu (etxe multzoak, bizitzaleku ainitzetako egoitzak...), aholku zerbitzua jendeari zein eraikitzaile profesionali eskainiz:

Partaidetzako harremana eraiki eragileen eta Adituen Batzordearen artean.

Sentsibilisazio lana eraman.

2/ Galtzekotan diren euskal toponimoak berreskuratu.

2.1. Ahozko toponimiaren bilketa lagundu :

Ahozko toponimiaren bilketa metodologia finkatu, Euskaltzaindiaren arauari eta irizpideei jarraikiz, lurraldeko berezitasunak kontuan hartuz.

Finkatu metodologia ezagutzera eman eta baliatzera bultzatu.

Bilketa lanak lagundu, lehentasuna galtzekotan dauden toponimoetan jarriz (artzainen mendi toponimia, herri toponimia...).

2.2. Idatzizko iturri zaharretan dagoen toponimiaren berreskuratzea lagundu :

Iturri zaharren aurkezpen bilduma kalitatiboa burutu eta publikoaren eskuetan jarri.

Idatzizko toponimiaren biltze metodologia finkatu, Euskaltzaindiaren arauak eta irizpideak jarraikiz, lurraldeko berezitasunak kontuan hartuz.

Finkatu metodologia ezagutzera eman eta baliatzera bultzatu.

Biltze lanak lagundu eta emaitzak argitaratu.

3/ Diffuser et rendre visible la toponymie basque.

3.1. Créer une base de données des toponymes de langue basque et la rendre accessible :

Définir les caractéristiques de la base de données (contenu, structure, liens, modes d'actualisation et de consultation...).

Créer la base de données et la nourrir au fur et à mesure des opérations de collecte et d'adaptation graphique.

Rendre la base de données accessible via Internet.

3.2. Diffuser et favoriser l'utilisation de la toponymie basque :

Communiquer sur l'existence d'une base de données des toponymes de langue basque du territoire.

Publier et diffuser des documents grand public mettant cette toponymie en valeur (cartes simples ou en relief, du Pays Basque ou de secteurs, agendas, matériel pédagogique).

Encourager l'utilisation des toponymes corrigés : partenariats avec l'IGN, le centre des impôts, les offices de tourisme, les collectivités, et actions de sensibilisation auprès du grand public.

Impulser et accompagner la poursuite de la mise en place du bilinguisme dans la signalétique publique actuelle et future (noms de rue, signalétique directionnelle...).

4/ Utiliser la toponymie comme un outil d'initiation à la langue basque.

4.1. Utiliser la toponymie pour inviter un plus large public à s'intéresser à la langue basque :

Montage d'activités pédagogiques autour de la toponymie : initiation à la langue basque par la découverte de la toponymie de première proximité, échanges entre classes de secteurs différents...

3/ Toponimoak jendartean zabaldu eta agerian eman.

3.1. Toponimoen datubasea sortu eta publikoaren eskuetan jarri : Toponimoen datutegiaren ezaugarriak definitu (edukia, egitura, loturak, kontsulta-bideak, eguneratze-moldeak...).

Datubasea sortu, eta toponimo berriak bildu eta egokitu arau, eguneratu.

Toponimoen datutegia Interneten bidez kontsultan ezarri.

3.2. Euskarazko toponimia ezagutarazi eta agerian eman :

Toponimoen datutegia publikoari ezagutzera eman.

Hedapen dokumentu erakargarriak sortu, argitaratu eta hedatu, publiko ezberdinei egokituz (mapak, paretan jartzeko ohizko zein erliebezko mapak, egutegi mapadunak, herri zein eskualdeko mapak, ikasmateriala...).

Toponimo egokituen baliatzera bultzatu :

Dokumentu publikoak kudeatzen dituzten erakunde eta egiturekin partaidetzak eraikiz : Zerga Zerbitzua, IGN egitura, herriak eta herri elkargoak, turismo bulegoak, elkarteak...

Sentsibilizazio lan berezia eraman jendarteari begira, toponimo egokitzeen nondik norakoak publikoari agertzeko eta ezagutzera emateko, jendeak leku-izen egokituak bere egin ditzan eta balia ditzan.

Gaurko seinaleta publikoa eta gero sortuko dena elebitasunean jartzen bultzatu eta lagundu (karrika izenak, norabide seinaleta...).

4/ Toponimia iturburu gisa baliatu hizkuntzara hurbiltzeko.

4.1. Toponimia tresna gisa baliatu euskararen lantzeko eta publiko berri bat euskarara erakartzeko :

Programa pedagogikoak ikastetxeetan muntatu, tokiko toponimia baliatuz euskararen deskubritzeko ala lantzeko.

Trukaketa batzu esperimentatu ingurumeneko toponimiaren lantzearen kariatara, ikastetxe eta sare ezberdinen artean, euskarazko irakaskuntza jarraitzen duten ikasleen eta beste ikasleen artean...

AXES DE TRAVAIL

Organisation d'animations au sein de communes ou de secteurs sur le thème de la toponymie : sensibilisation à la langue basque par les échanges entre personnes de générations différentes, entre nouveaux arrivants et résidents d'origine...

4.2. Encourager les travaux de recherche linguistique utilisant la toponymie comme source d'investigation :

Mener un travail partenarial avec le Centre d'Etudes Basques, le centre Iker, pour promouvoir la toponymie comme un objet d'investigation pour les étudiants : recherches linguistiques à partir des toponymes de la base de données, projets de collecte, d'analyse de documents historiques...

7/ TOPONYMIE

LAN ARDATZAK

Animazioak antolatu herrika edo eskualdeka toponimiaren inguruan, hizkuntzari buruzko interesa pizteko eta indartzeko.

Aukera honetaz baliatu, hizkuntzari publiko berri bat erakartzeko, publiko eta belaunaldi ezberdinen artean zubiak eraikitzeke, herritarrak eta kanpotik etorriak, gazte eta adinekoak...

4.2. Toponimia iturburu gisa baliatu euskararen ikertzeko :

Euskal Ikasketetako arduradunekin eta Iker zentroarekin partaidetzan, toponimia, ikerketa baliabide gisa ikasleei proposatu, bilketa berri batzuetarik abiatuz edota datutegia iturburutzat hartuz.

7/ TOPONIMIA

ENJEU MAJEUR



Promouvoir l'usage social du basque, pour que la langue apprise soit aussi une langue pratiquée, vue et entendue dans les lieux de vie

ORIENTATIONS STRATEGIQUES



1/ Promouvoir la présence et l'utilisation de la langue basque dans les secteurs stratégiques :

- 1.1. Promouvoir la présence et l'utilisation du basque auprès des opérateurs publics : institutions, administrations, services publics.
- 1.2. Promouvoir la présence et l'utilisation du basque auprès des opérateurs privés et associatifs de grande taille ou s'adressant à un public important.
- 1.3. Promouvoir la présence et l'utilisation du basque auprès des secteurs d'activités en contact plus particulier avec les jeunes.

2/ Créer et mettre en œuvre les outils et les partenariats facilitant l'adhésion des acteurs de la vie sociale :

- 2.1. Structurer un dispositif public d'animation cohérent et durable.
- 2.2. Répondre aux besoins linguistiques générés par la démarche engagée.

ERRONKA NAGUSIA



Gizartea euskaldundu, euskal hiztunek hizkuntza bizitza sozialean baliatzeko, entzuteko eta ikusteko aukera ukan dezaten

ORIENTABIDE ESTRATEGIKOAK



1/ Euskararen presentzia garatu alor estrategikoetan :

- 1.1. Eragile publikoengan, euskararen lekua eta erabilpena sustatu.
- 1.2. Izari handiko egitura pribatuetan eta elkarteetan, ala publiko zabala hunkitzen dutenetan, euskararen lekua eta erabilpena sustatu.
- 1.3. Euskararen presentzia garatu, bereziki haur eta gazteak hunkitzen dituzten jarduera alorretan.

2/ Bizitza sozialeko eragileek euskararen garapen politika honekin bat egitea susta dezaketen tresna eta partaidetzak sortu :

- 2.1. Euskararen presentzia bizitza sozialean garatzeko, egitura publiko koherente eta eraginkorra eraiki.
- 2.2. Euskararen presentziaren garatzearen eraginez sortu ko diren hizkuntza beharrei erantzun.

AXES DE TRAVAIL

1/ Promouvoir la présence et l'utilisation de la langue basque dans les secteurs stratégiques.

1.1. Promouvoir la présence et l'utilisation du basque auprès des opérateurs publics : institutions, administrations, services publics : Développer une politique volontariste en faveur de l'utilisation de la langue basque, dans le respect de la libre adhésion des acteurs, selon le mode opératoire suivant :

Solliciter les opérateurs.

Etudier avec l'organisme les possibilités de développement de l'usage de la langue basque.

Elaborer en partenariat une convention précisant les orientations retenues, les modalités d'accompagnement par l'OPLB.

Porter prioritairement l'effort sur les actions contribuant à accroître l'utilisation de la langue basque dans la communication orale et écrite avec le public.

1.2. Promouvoir la présence et l'utilisation du basque auprès des opérateurs privés et associatifs de grande taille ou s'adressant à un public important :

Développer une politique volontariste en faveur de l'utilisation de la langue basque, dans le respect de la libre adhésion des acteurs, selon le mode opératoire suivant :

Solliciter les opérateurs en donnant la priorité aux secteurs les plus stratégiques.

Etudier avec l'organisme les possibilités de développement de l'usage de la langue basque.

Elaborer en partenariat une convention précisant les orientations retenues, les modalités d'accompagnement par l'OPLB.

Développer une stratégie différenciée en fonction de la typologie des acteurs et de la fonction assurée par l'opérateur dans la société.

Exemples :

